EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII Planaren ebaluazioa. 2021

## Jarraipen memoria

P•VII

Talde teknikoa:

ikertalde

IKERTALDE, Grupo consultor S.A.

# AURKIBIDEA


0.- AURKEZPENA ....5

1.- IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK ....6

2.- EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNU ONA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO EKINTZAK ....8

2.1. Berdintasunerako araudi espezifikoa .... 8

2.2.- EAEko berdintasun-politiken plangintza .... 9

2.3.- Berdintasunerako unitate administratiboak eta euskal administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak ....15

2.4.- Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan ....20

2.5.- Arauen generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak txertatzea euskal administrazioetan ....24

2.6.- Berdintasun-politiketan parte hartzea ....27

2.7.- Berdintasunerako prestakuntza administrazio publikoetan ....29

2.8.- Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzetan ....33

2.9.- Berdintasunaren beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren eremuan.... 37

3.- ESKU-HARTZEAREN ARDATZETAKO JARRAIPENAREN EMAITZAK ....45

3.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak .... 45

3.2. Esku-hartzeen helburu politikoak ....47

3.3. Berdintasun-ekintzen gaiak .... 50

3.4. Esku-hartze mota ....52

3.5. Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzea eta kudeatzea ....63

3.6. Berdintasun-ekintzen erakunde eta pertsona onuradunekiko hurbilketa .... 65

3.7. Egokitzapen-neurrien erabilera ekintzetan .... 68

3.8. Esku-hartzeen kostua .... 69

TAULEN AURKIBIDEA


1. taula: Parte hartu duten erakundeen eta planak dituzten erakundeen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 9
2. taula: Berdintasunaren arloko planak indarrean dituzten erakunde parte-hartzaileen kopurua eta planen ezaugarriak. 2021 ... 12
3. taula: Berdintasunaren arloko planen edo programen ebaluazioa edo jarraipena egin duen erakunde-kopurua. 2021 ... 12
4. taula: Berdintasunaren arloko barne-planak dituen erakunde-kopurua . 2021 ... 13
5. taula: Barneko berdintasun-planik ez duten erakundeen lan-antolaketan txertatutako neurriak. 2021 ... 14
6. taula: Berdintasunaren arloko organoak edo administrazio-unitateak dituen erakunde-kopurua. 2021 ... 18
7. taula: Berdintasuna sustatzeko lanaren ezaugarriak. 2021 ... 18
8. taula: Teknikariak, kontratu-motaren arabera (%). 2021 ... 18
9. taula: Berdintasuna sustatzeko eginkizunak dituzten teknikariak. 2021 ... 19
10. taula: Arduraldi esklusiboa duten langileak, lanaldi-motaren arabera. 2021 ... 19
11. taula: LPZn (Lanpostuen Zerrendan) berdintasun-teknikariak eta A mailako lanpostuak dituzten erakundeak. 2021 ... 19
12. taula: Berdintasunaren arloko aurrekontu orokorra eta espezifikoa. 2021 ... 23
13. taula: Gauzatu diren berdintasunaren arloko aurrekontuen xehakapena. 2021 ... 23
14. taula: Genero-ikuspegia aurrekontuetan sartzen egindako aurrerapausoak. 2021 ... 23
15. taula: Eraginari buruzko ebaluazioa egin zaien arauen kopurua eta ezaugarriak. 2021 ... 26
16. taula: Erakundeek arauetan berdintasuna lortzeko ezarri dituzten neurri motak. 2021 ... 26
17. taula: Genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioak eta jarraipena egiteko onartu diren gidalerroak, akordioak.... 2021 ... 26
18. taula: Herritarren parte-jartzea eta berdintasuna. 2021 ... 28
19. taula: Erakundeek sustatu duten berdintasunaren arloko barne-prestakuntza. 2021 ... 31
20. taula: Berdintasunaren arloko barne-prestakuntzak izandako parte-hartzea, kategorien arabera. 2021 ... 31
21. taula: Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntzak (ez barnekoak, ez HAEEek antolatuak) izandako parte-hartzea. 2021 ... 31
22. taula: Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntzak (ez barnekoak, ez IVAPek antolatuak) izandako parte-hartze xehakatua, kategorien arabera. 2021 ... 32
23. taula: Berdintasun-irizpideak kontratuetan. 2021 ... 35
24. taula: berdintasun-irizpideak hitzarmenetan. 2021 ... 35
25. taula: berdintasun-irizpideak dirulaguntzetan eta laguntzetan. 2021 ... 35
26. taula: berdintasun-irizpideak beketan. 2021 ... 36
27. taula: Irizpideak kontratazio-prozesuetan aplikatzeko arauak eta gidalerroak onartzea. 2021 ... 36
28. taula: Genero-ikuspegia plan sektorialetan eta zeharkako planetan sartzea. 2021 ... 41
29. taula: Berdintasuna sustatzeko koordinazio-egituretan* parte-hartzea. 2021 ... 41
30. taula: Sail arteko koordinazio-egituren bilera kopurua 2021 (berdintasuna) – ... 41
31. taula: Sailen barruko koordinazio-egituren bilera kopurua 2021 (berdintasuna) ... 42
32. taula: Beste koordinazio-egitura batzuk, indarkeriari lotutako protokoloak eta lerro egonkorrak Nazioarteko lankidetza. 2021 ... 42
33. taula: Genero-ikuspegia azterlan eta estatistika sistematikoetan edo puntualetan txertatzea. 2021 ... 42
34. taula: Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko azterlanak. 2021 ... 43
35. taula: Azterlan sektorialak, gaien arabera. 2021 ... 43
36. taula: kolektiboei edo emakume-taldeei buruzko azterlanak. 2021 ... 43
37. taula: Hautaketa prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2021 ... 43
38. taula: Enplegu publikoan sartzeko, mailaz igotzeko... epaimahaiak, sariak emateko epaimahaiak, etab. 2021 ... 44
39. taula: Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2021 ... 44
40. taula: Identifikatu den jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 46
41. taula: Aurreko urtekoen jarraipenak izandako jarduketen kopurua eta ehunekoa, erakunde motaren arabera. 2021 ... 46
42. taula: Helburu politiko zehatz bat duen ekintza kopurua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 49
43. taula: Gaiz zerrenda batzuei buruzko jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 51
44. taula: Esku-hartze jakin baten inguruan antolatu den jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 54
45. taula: Herritarrentzako prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 58
46. taula: Prestakuntza-helburu zehatzak (herritarren prestakuntza) lortzeko antolatu den jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 58
47. taula: Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretan parte hartu duen pertsona-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 58
48. taula: Zerbitzu publikoei prestakuntza-helburuen inguruan eskaini zaien prestakuntza-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 58
49. taula: Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueretan parte hartu duen pertsona kopurua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 60
50. taula: Sentsibilizazio-jardueren kopurua, tipologiaren eta erakunde-motaren arabera. 2021 ... 60
51. taula: jarduera zehatz batzuei buruzko informazio-, ezagutza- eta azterketa-jarduketen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 62
52. taula: Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzeko eta kudeatzeko jarduketen kopurua eta ezaugarriak, erakundeen arabera. 2021 ... 64
53. taula: Zerbitzua, baliabidea edo ekipamendua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 64
54. taula: Jarduketa-kopurua, hartzaileen eta erakunde-motaren arabera. 2021 ... 67

55. taula: Gizonentzat, emakumeentzat eta beste identitate batzuentzat berariaz antolatutako jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 67
56. taula: Kolektibo zehatzetan oinarritutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 67
57. taula: Berdintasunaren arloko beste helburu batzuei (ez soilik emakumeei eta gizonei) lotutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 67
58. taula: Hainbat kolektiboren ezaugarrietara egokitzeko neurriak ezarri dituen jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021 ... 68
59. taula: Kostu eta guzti jakinarazitako jarduketak, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 71
60. taula: Jakinarazitako jarduketen kostua, erakunde-motaren arabera. 2021 ... 71
61. taula: Jarduketen kostua, esku-hartzearen helburuaren eta erakunde motaren arabera sailkatuta. 2021 ... 71

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1 grafikoa: Parte hartu duten erakundeetatik berdintasuna sustatzeko araudia duten erakundeak ... 8
2. grafikoa: Berdintasunaren arloko planak dituzten udalerri eta foru-aldundien kopurua, baldin eta identifikatutako arloek ere planen ezarpenean parte hartu badute. 2021 ... 13
3. grafikoa: Ebaluazioan parte hartu duten erakundeen eta berdintasun-unitatea duten erakundeen kopurua. 2021 ... 15
4. grafikoa: EAEko berdintasun-langileak, erakundeen arabera. 2021 ... 16
5. grafikoa: Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, erakundearen arabera. 2021 ... 16
6. grafikoa: Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio esklusiboa dutenak (LO+LP), erakundearen arabera. 2021 ... 17
7. grafikoa: EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundearen arabera. 2021 ... 20
8. grafikoa: Aurrekontu xehakatuak. 2021 ... 21
9. grafikoa: Eraginari buruzko txosten-kopurua, berdintasun-neurriak gehitzea eragin dutenen kopurua eta araua neutroa dela ezarri dutenen kopurua, erakundeen arabera. 2021 ... 25
10. grafikoa: Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osaeran genero ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2021 ... 27
11. grafikoa: Emakume eta gizonak EAEko administrazioek berdintasunaren arloan sustatutako prestakuntzan. 2021 ... 29
12. grafikoa: Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalaren arabera. 2021 ... 30
13. grafikoa: Emakumeak eta gizonak berdintasunari buruzko beste prestakuntza batean (ez barnekoa, ez HAEErena). 2021 ... 30
14. grafikoa: Berdintasun-irizpideak kontratu, dirulaguntza, hitzarmen eta beketan. 2021 ... 34
15. grafikoa: Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2021 ... 37
16. grafikoa: Sail arteko eta berruko egiturak eta 2021ean egindako bileren kopurua ... 38
17. grafikoa: Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua epaimahaietan. 2021 ... 40
18. grafikoa: Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2021 ... 40
19. grafikoa: EAEn berdintasun-alorrean garatutako jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2021 ... 45
20. grafikoa: Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketen kopurua. 2021 ... 47
21. grafikoa: gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketen kopurua. 2021 ... 50
22. grafikoa: Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2021 ... 53
23. grafikoa: EAEn berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarrak), erakundearen arabera. 2021 ... 55
24. grafikoa: Herritarrak trabatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2021 ... 56
25. grafikoa: EAEn berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2021 ... 56
26. grafikoa: Zerbitzu publikoentzako prestakuntza jarduketen kopurua, helburuaren arabera. 2021 ... 57
27. grafikoa: Herritarrentzako prestakuntzan eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntzan parte hartu dutenen kopurua. 2021 ... 57
28. grafikoa: Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2021 ... 59
29. grafikoa: Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2021 ... 59
30. grafikoa: Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2021 ... 61
31. grafikoa: informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketen kopurua, oinarrizko edukiaren arabera. 2021 ... 62
32. grafikoa: Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2021 ... 63
33. grafikoa: Zerbitzu eta baliabideak sortu, , kudeatu eta aldatzeko jarduketen kopurua. 2021 ... 64
34. grafikoa: Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2021 ... 65
35. grafikoa: Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2021 ... 66
36. grafikoa: Bestelako desberdinkeriak borrokatzera bideratutako ekintzen kopurua. 2021. ... 66
37. grafikoa: Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2021 ... 68
38. grafikoa: EAEn berdintasun-alorrean jorratutako jarduketen kopurua, erakundearen arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta dutenak. 2021 ... 70
39. grafikoa: Jakinarazitako jarduketen kostu osoa, erakundearen arabera (milakoetan). 2021 ... 70

# 0.- AURKEZPENA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko 2/1998 Legearen 4. artikuluan zehazten denez, urtero memoria bat egin behar da, non euskal herri-aginteek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten duten plangintzari dagokionez egiten dituzten jarduerak jasotzen dira. Beraz, txosten honek erantzuna ematen dio botere publikoek 2021ean garatutako jardueraren jarraipenari.

**Zer eduki biltzen ditu txostenak?**

Aurreko memorien antzeko egitura du, EAEko administrazioan berdintasun-politika publikoak ezartzean izandako aurrerapena edo atzerakada baloratu ahal izateko.

Edukiak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren egiturari berari dagozkio:

- **Gobernu onerako programak eta neurriak**. Planak 5 programa eta 15 neurri biltzen ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legearen aginduak jasotzen eta zabaltzen dituztenak, berdintasun-printzipioa erakundean bertan eta euskal botere publikoen funtzionamenduan txertatzeko.
- **Berdintasunaren arloan esku hartzeko ardatzak**. Hiru ardatzek osatzen dute: 8 programa eta 22 helburu estrategiko. Hauek dira ardatzak: Emakumeen ahalduntzea; Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko; eta Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

**Zer metodologia aplikatu da?**

Informazioa Emakunderen berezko informazio-aplikazio baten bidez jasotzen da. Bertan, bi galdetegi mota daude:

| **Gobernu ona** | + | **Esku hartzeko ardatzak** |
|---|---|---|
| Erakunde bakoitzak EAEko erakundeek beren erakundean genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez dituzten arauzko betebeharrak betetzeari buruzko informazioa jasotzen du. | | VII. Planaren Esku-hartze Ardatzei dagokienez erakundeek garatutako jarduerak. Erakunde bakoitzak ebaluazio-urtean egindako ekintza adina galdetegi bete ditzake (betiere erakundearentzat berarentzat garrantzitsuak izan badira). |

Memoria honetan aurkezten den informazioa 2021eko (otsailetik ekainera) aplikazioaren bidez jaso da, eta baliozkotu egin da (iraila).

# 1.- IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planek esparru-plan izaera dute, eta, beraz, botere publikoen modu generiko batean definitzen dituzte berdintasunaren arloko printzipioak eta helburuak. Hala ere, plan honek ez ditu finkatzen erakundeek ezarri beharreko jarduerak, horrela, bakoitzak ekintzen diseinua defini dezan, proposatu diren berdintasun-helburuak lortzeko.

Txosten honen helburua EAEko berdintasun-politiken bilakaeraren jarraipena egitea da, botere publikoek emandako betearazpen-datuetan oinarrituta. Gobernu Onaren kasuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta horren ondorengo arau-garapenak errazago baloratzen diren helburuak ezartzen dituzte. Esku hartzeko ardatzei dagokienez, txostenak garatu dituzten ekintzak jasotzen ditu, baina ez horien emaitzak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zuzentzean edo ezabatzean.

Beraz, memoria honetan berdintasunaren arloko plangintzaren oinarrizko gaiak aztertzen dira, bai eta hainbat eremu zein dimentsiotan berdintasuna bultzatzeko garatutako jardueren ezaugarriak ere. Dokumentu honetan, 124 erakunderi dagokie azterketaren edukia, hurrengo taula honetan jaso dira:

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua. 2021-

| Erakundeak | Kopurua | Gobernantza | Fitxak baino ez |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritzako sailak | 12 | 12 | |
| Foru-aldundiak | 3 | 3 | |
| Udalak[1] | 63 | 51 | 12 |
| Mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoak [2] | 12 | 10 | 2 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak [3] | 15 | 15 | |
| Kapital publikoko enpresak | 13 | 10 | 3 |
| Bestelako instituzio eta erakundeak | 6 | 5 | 1 |
| **GUZTIRA** | **124** | **106** | **18** |

Jarraian, gobernantza-galdetegiari eta/edo ebaluazio honetan jarduera fitxei erantzunez parte hartu duten erakundeen zerrenda dago, memoria hori egiteko informazioa eskainiz.

[1] 51 udalek erantzun diote gobernantza-galdetegiari, eta 40 udalek jarduera-fitxak sartu dituzte.
[2] Kuadrilla eta mankomunitate horiek **107 udalerri** hartzen dituzte guztira.
[3] Emakunde sartzen da epigrafe honetan.

| | | |
|---|---|---|
| Abadiñoko Udala<br>Abaltzisketako Udala<br>Amezketako Udala<br>Amurrioko Udala<br>Andoaingo Udala<br>Aramaioko Udala<br>Aretxabaletako Udala<br>Artziniegako Udala<br>Aiarako Udala<br>Azkoitiko Udala<br>Barakaldoko Udala<br>Basauriko Udala<br>Beasaingo Udala<br>Bergarako Udala<br>Bermeoko Udala<br>Berriatuako Udala<br>Berrizko Udala<br>Bilboko Udala<br>Galdakaoko Udala<br>Debako Udala<br>Donostiako Udala | Elgoibarko Udala<br>Elorrioko Udala<br>Ereñoko Udala<br>Ermuako Udala<br>Eskoriatzako Udala<br>Foruko Udala<br>Gatikako Udala<br>Gernika-Lumoko Udala<br>Getariako Udala<br>Gordexolako Udala<br>Gueñesko Udala<br>Irungo Udala<br>Lanestosako Udala<br>Lazkaoko Udala<br>Leioako Udala<br>Lezoko Udala<br>Lizartzako Udala<br>Mendaroko Udala<br>Mundakako Udala<br>Mungiako Udala<br>Okondoko Udala | Oñatiko Udala<br>Ordiziako Udala<br>Orioko Udala<br>Pasaiako Udala<br>Portugaleteko Udala<br>Aguraineko Udala<br>Donemiliagako Udala<br>Santurtziko Udala<br>Sestaoko Udala<br>Soraluzeko Udala<br>Ugao-Miraballeseko Udala<br>Urnietako Udala<br>Usurbilgo Udala<br>Gasteizko Udala<br>Zaldibarko Udala<br>Zaldibiako Udala<br>Zaratamoko Udala<br>Zarauzko Udala<br>Zeberioko Udala<br>Zizurkilgo Udala<br>Zumaiako udala |
| Añanako Kuadrilla (10 udalerri)<br>Aiarako Kuadrilla (5 udalerri)<br>Gorbeialdeko Kuadrilla (6 udalerri)<br>Arabako Lautadako Kuadrilla (8 udalerri) | Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla (23 udalerri)<br>Eudel<br>Haurreskolak<br>Debabarreneko Mankomunitatea (8 udalerri) | Enkarterriko Mankomunitatea (11 udalerri)<br>Tolosaldeako Mankomunitatea (28 udalerri)<br>Urola Garaiko Mankomunitatea (4 udalerri)<br>Saiaz Mankomunitatea (4 udalerri) |
| Lehendakaritza<br>Kultura eta Hizkuntza Politika Saila<br>Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila<br>Ogasun eta Ekonomia Saila | Hezkuntza Saila<br>Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila<br>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila<br>Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila | Osasun Saila<br>Segurtasun Saila<br>Lan eta Enplegu Saila<br>Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila |
| Arabako Foru Aldundia | Bizkaiko Foru Aldundia | Gipuzkoako Foru Aldundia |
| Emakunde | | |
| Polizia Akademia<br>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia<br>Uraren Euskal Agentzia<br>Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea | EEE. Energiaren Euskal Erakundea<br>Eustat<br>HABE<br>IVAP<br>Finantzen Euskal Institutua | Kontsumobide. Kontsumoko Euskal Institutua<br>Lanbide<br>Osakidetza<br>Osalan<br>Unibasq |
| Basquetour<br>EJIE<br>Euskotren<br>Ihobe<br>Itelazpi<br>Izenpe | Euskadiko Orkestra<br>Osatek<br>Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea<br>Arabako Teknologia Parkea SA | Teknologi Elkartegia, S.A.<br>SPRI<br>Visesa |
| EGO. Fundación Joven Orquesta Euskal Herria<br>ELIKA | Fundación Basque Team<br>HAZI | Bizkaiko Batzar Nagusiak<br>UPV/EHU |

# 2.- EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNU ONA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO EKINTZAK

## 2.1. Berdintasunerako araudi espezifikoa

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 3.4 artikuluan definitzen du **genero-mainstreaming** terminoa, eta ondoren VII. Planean ere jasotzen da:

*"Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan desberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera espezifikoak txertatzea".*

Gaur egun, erakunde gutxi batzuek berdintasunerako araudi espezifikoa dute.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII Planaren bidez, foru-, toki- eta tokiz gaindiko erakundeen berdintasun-arloko arau espezifikoei buruzko informazioa jaso ahal izan da. Ebaluazioaren emaitzek erakusten dute oraindik ere urriak direla berdintasunerako araudi espezifikoa duten erakundeak:

- Udalen kasuan: 51 parte-hartzaileetatik % 17,6k berdintasunerako arau bat dute, eta beste % 17,6 prestatzen ari dira.
- Mankomunitate eta kuadrillen kasuan: % 10ek araudi hori du. Beste % 20a prestatze-prozesuan dago.
- Azkenik, hiru foru-aldundietatik bik dituzte berdintasun-arauak.

**1 grafikoa:** Parte hartu duten erakundeetatik berdintasuna sustatzeko araudia duten erakundeak



## 2.2.- EAEko berdintasun-politiken plangintza

4/2005 Legeak adierazten duenez, *Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko du legegintzaldi bakoitzeko lehen sei hilabeteetan. Plan horretan, euskal herri-aginteek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak jasoko dira.*

EAEko Emakumeen eta Gizonen VII. Plana erreferentzia gisa hartzen da foru-aldundiek eta udalek edo beste erakunde publiko batzuek (baita kapital publikoko enpresek ere) definitzen dituzten jarraibideetatik abiatu eta beren gidalerro edo programak egin ditzaten.

Erakundeen % 72,9k bere jarduera osoan, baita kanpoan ere, berdintasuna sustatzeko planak ditu.

2021eko ebaluazioan parte hartu duten erakunde guztietatik, % 72,9k indarreko berdintasun-plan bat dute, erakundearen jarduera osoan berdintasuna sustatzea helburu duena, kanpoko jarduerak barne. Eusko Jaurlaritzako sail guztiek, Emakundek eta hiru foru-aldundiek mota horretako planak dituzte.

**1. taula:** Parte hartu duten erakundeen eta planak dituzten erakundeen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Erakunde parte-hartzaileak - gobernantza | Plana duten erakundeak | % Plana duten erakundeak |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 12 | 12 | %100 |
| Emakunde | 1 | 1 | %100 |
| Foru Aldundiak | 3 | 3 | %100 |
| Udaletxeak | 51 | 32 | %62,7 |
| Mankomunitateak, kuadrillak eta partzuergoak | 10 | 6 | %60,0 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 14 | 12 | %85,7 |
| Kapital publikoko enpresak | 10 | 8 | %80,0 |
| Beste erakunde batzuk | 5 | 4 | %80,0 |
| **GUZTIRA** | **107** | **78** | **%72,9** |

Bestalde, gaur egun ezaugarri horiek dituzten planak egiten ari diren 37 erakunde identifikatu dira. Elaborazio-prozesu horietako gehienak toki-erakundeetan ikusten dira (16 udal).

**Zer prozesu jarraitu da plan horiek egiteko?**

- **Aurretiko diagnostikoak**. Erakunde gehienek (% 85,9) aldez aurreko diagnostiko bat egiten dute plangintzan jorratu beharreko helburuak eta erronkak identifikatzeko (aurreko urtekoa baino apur bat txikiagoa, erakundeen % 90,1ek egin baitzuen).
- **Parte-hartzea.** % 53,8k herritarren partaidetza orokorra edo espezifikoa izan du. Era berean, adierazi behar da gero eta gehiago (% 82,0) parte hartzen dutela teknikariek eta politikariek erakundeen planak egiterakoan. Joera hori sistematizatzen ari da, eta azken urteetan plan gehienek bi ikuspegiak txertatu dituzte. Diseinatzean teknikariek edo politikariek soilik parte hartzen duten planak gutxiengoa dira. Toki-eremuan, Gizarte Politika, Alkatetza edo Kultura, Euskara eta Kirolak dira berdintasun-planak gauzatzeko gehien inplikatzen direnak.
- **Jardueren egutegia.** % 80,8k jarduera-egutegi bat du, eta erakundeen % 69,2k argitaratu du bere edukia.
- **Aurrekontua.** Neurri txikiagoan, planen % 58,9ak bere garapenerako aurrekontua du.
- **Jarraipena eta ebaluazioa**. Emaitzek erakusten dutenez, plan gehienek (% 78,2) jarraipen- eta/edo ebaluazio-sistemak biltzen dituzte. Hala ere, 3 planetik 1ek baino ez du ebaluazioa egiteko aurrekontu bat, eta kasuen % 21,8an baino ez dago aurreikusita ebaluazioaren emaitzak argitaratzea.

Horrez gain, erakunde batzuek berdintasunarekin lotutako beste jarduera-plan edo -programa batzuk dituzte, batez ere emakumeen aurkako indarkeria oro har edo espezifikoki (sexu-salerosketa eta -esplotazioa) prebenitzeko edo indarkeria horren aurrean jarduteko.

## Barneko berdintasun-planak

Erakundeen barruko lan-jardunean berdintasuna sustatzeko erantzukizuna Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan[4], zehaztuta dago. Lege horren arabera, erakundeek barneko lan-plangintza bat egin behar dute, erakunde horietan lan egiten duten pertsonen kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko. EAEn, 2016an onartu zen EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana, eta 2017an jarri zen indarrean. Plan hori aurrerapauso handia da erakunde horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzetan berdintasun-aginduak aplikatzeko sistematizazioan.

[4] Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, barneko berdintasun-planak egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutako neurrien multzo ordenatu bat dira, enpresan edo erakundean emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna lortzeko eta sexuagatiko diskriminazioa ezabatzeko.

Erakundeen % 33,9k ditu barneko berdintasun-planak.

EAEko erakundeen barneko berdintasun-planen eskuragarritasuna mugatua da oraindik ere: erakundeen % 33,9k baino ez du horrelako plan bat. Eusko Jaurlaritzak, Emakundek eta beste erakunde guztiek (UPV/EHU, Bizkaiko Batzar Nagusiak, HAZI, Basque Team Fundazioa eta EGO) dituzte plan horiek. Plan horiek ez dira hain ohikoak kapital publikoko enpresetan (% 50), erakunde autonomoetan (% 42,8), aldundietan (% 33,3), mankomunitate zein kuadrilletan (% 20) eta udaletan (% 7,8).

**Zer prozesu jarraitu da plan horiek egiteko?**

- **Egoeraren diagnostikoa.** Gehienak (% 91,7) emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostiko batetik abiatuta egin dira.
- **Jardueren egutegia.** % 80,5ek egutegi bat du egin beharreko jarduerak planifikatzeko.
- **Aurrekontua.** % 69,4k berariazko aurrekontua du proiektua garatzeko.
- **Jarraipena eta ebaluazioa**. Kasuen % 83,3an, jarraipen-sistema bat ezarri da, planeko neurrien garapen-maila ezagutzeko.
- Erakundeen % 38,9k soilik (kapital publikoko enpresa gehienak) adierazten du plan horien helburuak, ekintzak eta adierazleak **kudeaketa publiko aurreratuko eredu batean** edo tresna baliokide batean integratuta daudela.

Azkenik, nahiz eta erakunde gehienek ez duten barneko berdintasun-planik, batzuek **berdintasunerako neurri espezifikoak aplikatzen dituzte beren barneko lan-politikan**, helburu desberdinekin:

- Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzea, sustapen profesionalari kalterik egin gabe (erakundeen % 21,8);
- Berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzea, bai enplegu publikora iristeari dagokionez, bai karrera profesionalean zehar (% 19,7);
- Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea hautaketa- eta balorazio-organoetan (% 15,9);
- Sexu-jazarpenetik eta jazarpen sexistatik babesteko neurriak (% 12,2);
- Edozein bereizkeria-motaren biziraupena dakarten oztopoak kentzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorreko baldintzak eskaintzeko enplegu publikorako sarbidean eta karrera profesionalaren garapenean (% 11,1).

### a) Berdintasuna sustatzeko planak eta programak

**2. taula:** Berdintasunaren arloko planak indarrean dituzten erakunde parte-hartzaileen kopurua eta planen ezaugarriak. 2021

| Erakundeak | Plana duten erakundeak | | Sailen partaidetza prestakuntzan (politikoa eta teknikoa) | Diagnostikoa | Herritarren partaidetza[5] | | Jarraipen egutegia | Aurreko. | Publik. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gaur egun | Egiten | | | Orokorra | Espezifikoa | | | |
| Eusko Jaurlaritza | 12 | 8 | 12 | 12 | - | - | 12 | 9 | 11 |
| Emakunde | 1 | - | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 | 1 |
| Foru Aldundiak | 3 | 2 | 3 | 2 | - | 3 | 3 | 1 | 3 |
| Udaletxeak | 32 | 16 | 30<br>2(P) | 27 | 2 | 30 | 22 | 19 | 20 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 6 | - | 5<br>1(T) | 5 | - | 4 | 4 | 4 | 3 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 12 | 4 | 7<br>3(T) 1(P) | 9 | - | - | 12 | 6 | 7 |
| Kapital publikoko enpresak | 8 | 5 | 3<br>(5T) | 7 | 1 | - | 8 | 5 | 7 |
| Beste erakundeak (UPV/EHU, EGO, Basque Team Fundazioa, JJGGB) | 4 | 2 | 3<br>(1T) | 4 | - | 2 | 1 | 1 | 2 |
| **GUZTIRA** | **78** | **37** | **64<br>10T+3P** | **67** | **3** | **39** | **63** | **46** | **54** |

Oharra: Plana egiteko hainbat arlotan parte hartu duten erakundeak. Parentesi artean (t), arlo horietako teknikariek bakarrik parte hartu dutenean, eta (p), arlo horietako politikariek bakarrik parte hartu dutenean, ez politikariek eta teknikariek.

**3. taula:** Berdintasunaren arloko planen edo programen ebaluazioa edo jarraipena egin duen erakunde-kopurua. 2021

| Erakundeak | Ebaluazioa aurreikusita | | | Aurrekontu ebaluazioa | Aurreikus. Publik. Ebal. |
|---|---|---|---|---|---|
| | Jarraipena | Ebal. | Biak | | |
| Eusko Jaurlaritza | 3 | 1 | 8 | 1 | 3 |
| Emakunde | - | - | 1 | - | 1 |
| Foru Aldundiak | 1 | 1 | 1 | 3 | - |
| Udaletxeak | 5 | 5 | 12 | 13 | 7 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | - | - | 3 | 3 | 1 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 1 | - | 8 | 1 | 2 |
| Kapital publikoko enpresak | 4 | - | 4 | 3 | 1 |
| Beste erakunde batzuk | - | 1 | 2 | - | 2 |
| **GUZTIRA** | **14** | **8** | **39** | **24** | **17** |

[5] Herritarren parte-hartzean, emakumeek eta/edo kolektibo feministek eta emakumeen elkarteek maila indibidualean eta/edo kolektiboan (orokorrean) eta espezifikoan duten parte-hartzeari buruz galdetzen da.

**2. grafikoa:** Berdintasunaren arloko planak dituzten udalerri eta foru-aldundien kopurua, baldin eta identifikatutako arloek ere planen ezarpenean parte hartu badute. 2021




(1) Ekonomia: ekonomia sustatzea, berrikuntza, ikerketa, merkataritza, turismoa, landa-garapena eta abar

(2) Habitata: azpiegiturak eta herri-lanak, lurralde-antolamendua, hirigintza, etxebizitza, mugikortasuna eta garraioak, ingurumena.

## b) Barneko berdintasun-planak

**4. taula:** Berdintasunaren arloko barne-planak dituen erakunde-kopurua [6]. 2021

| Erakundeak | Barneko plana duten erakundeak | Diagnostikoa | Aurrekontua | Egutegia | Jarraipen sistema | Publikoa | Kudeaketa publiko aurreratuen helburuak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza[7] | 12 | 12 | 12 | 12 | 12 | 12 | 7 |
| Emakunde | 1 | | | | | | |
| Foru Aldundiak | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | - |
| Udaletxeak | 4 | 3 | 1 | 2 | 2 | 1 | 1 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 1 | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 6 | 5 | 3 | 5 | 5 | 3 | 1 |
| Kapital publikoko enpresak | 5 | 5 | 3 | 5 | 5 | 5 | 4 |
| Beste erakunde batzuk | 5 | 5 | 3 | 2 | 4 | 2 | 1 |
| **GUZTIRA** | **36** | **33** | **25** | **29** | **30** | **25** | **14** |

[7] 2017an sartu zen indarrean Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Plana.

**5. taula**: Barneko berdintasun-planik ez duten erakundeen lan-antolaketan txertatutako neurriak. 2021

| Erakundeak | Lanean sartzeko eta sustatzeko oztopoak kentzea | Laneko eta etxeko bizitza uztartzen laguntzea | Prestakunt. sustatzea | Hautapen- eta balorazio-organoetan oreka lortzea | Sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkako babesa | Ordainsarietan diskriminazioa kentzea | Eraginkort. ebaluatzea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza[8] | 2 | 3 | 3 | 3 | 3 | 2 | 2 |
| Foru Aldundiak | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 1 |
| Udaletxeak | 12 | 22 | 20 | 15 | 11 | 8 | 9 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 1 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 1 | 7 | 5 | 4 | 1 | 2 | 2 |
| Kapital publikoko enpresak | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 | 3 | 2 |
| Beste erakunde batzuk | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **21** | **41** | **37** | **30** | **23** | **18** | **18** |

[8] Segurtasun Saileko eta Ertzaintzako lan-kontratuko langileak ez daude KAren Planari atxikita, eta, beraz, sail honek neurri zehatz batzuei buruzko informazioa ematen du, eta neurri horiek sartzen dituzte.

## 2.3.- Berdintasunerako unitate administratiboak eta euskal administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak

Berdintasunerako 4/2005 Legeak 9. eta 10. artikuluetan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailek, bai eta foru- eta toki-administrazioek ere, gutxienez administrazio-unitate bat izan behar dute berdintasuna bultzatzeko eta bultzada hori sailean bertan eta hari atxikitako erakunde autonomoetan koordinatzeko eta garatzen laguntzeko. Era berean, azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak ere eskakizun hori bete behar dute erakunde autonomoek[9], sozietateek eta gainerako erakunde publikoek.

Berdintasuneko administrazio-unitateetan lan egiten duten langile gehienak emakumeak dira, eta ohikoagoa da lanaldi osoa egitea.

2021ean, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek, hiru foru-aldundiek eta Emakundek unitate horiek dituzte berdintasuna bultzatzeko. Unitate horien presentziak behera egin du gainerako erakundeetan:

- % 70era iristen da mankomunitateetan eta kuadrilletan, eta behera egiten du toki-erakundeetan (% 58,8) eta erakunde autonomoetan (% 50).
- Berdintasunerako administrazio-unitate horiek gutxien sartzen dituzten erakundeak beste erakunde batzuk deiturikoak (% 20) eta kapital publikoko enpresak (% 10) dira.
- Administrazio-unitate horiek sortzeko prozesuan dauden erakundeak identifikatu dira (7), baita beste egitura batzuk dituztenak ere, hala nola berdintasuna bultzatzeko mahaiak, batzordeak edo berdintasun-taldeak (33).

**3. grafikoa:** Ebaluazioan parte hartu duten erakundeen eta berdintasun-unitatea duten erakundeen kopurua. 2021




[9] Azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuaren 3. artikuluaren arabera, honako erakunde autonomo eta erakunde publiko hauetan berdintasun-politikak sustatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen diren administrazio-unitateak izan behar dituzten erakunde autonomoetako eta erakunde publikoetako administrazio-unitateak honako hauek dira: Eustat-Euskal Estatistika Erakundea; IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea; HABE-Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia; Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea; EITB-Euskal Telebista; Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua; ETS-Euskal Trenbide Sarea.

Administrazio-organo edo -unitate horietan, guztira, 134 pertsona ari dira lanean, lanaldi osoan edo partzialki, EAEn emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen:

- Langile gehienak emakumeak dira (% 91,7) eta batez ere lanaldi osoan lan egiten dute (% 81,9).
- Teknikarien % 60,2 funtzionario finkoa da eta gainerakoa aldi baterakoa (% 39,8). Aldi baterako enpleguaren eraginak udal-eremuan, foru-aldundietan eta, neurri txikiagoan, mankomunitateetan eta koadriletan, beste erakunde batzuetan eta erakunde autonomoetan lan egiten dutenei eragiten die.

**4. grafikoa:** EAEko berdintasun-langileak, erakundeen arabera. 2021




Berdintasunaren arloan lan egiten duten 134 pertsonetatik, % 65,7k berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoko 150 ordu baino gehiago ditu. Espezializazio hori ohikoagoa da Eusko Jaurlaritzako, erakunde autonomoetako, mankomunitateetako eta kuadrilletako langileen artean (% 100a, 3 kasuetan), eta, neurri txikiagoan, udaletan (% 69,6), foru-aldundietan (% 63,5) eta beste erakunde batzuetan (% 33,3).

Berdintasunaren arloko teknikarien plazen % 66,1a administrazioko A mailakoak dira, eta % 14,2a B mailakoak.

**5. grafikoa:** Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, erakundearen arabera. 2021



Lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko dedikazio esklusiboari dagokionez:

- Eusko Jaurlaritzako, erakunde autonomoetako, foru-aldundietako (% 80) eta mankomunitateetako (% 75) langile gehienek lanaldi osoa dute.
- Udalei dagokienez, langileen % 54,8k lanaldi osoko dedikazioa du. Gainerakoek beren funtzioak beste jarduera batzuekin konbinatzen dituzte.
- Kapital publikoko enpresetan, ordea, langile gehienek lanaldi partzialeko dedikazio esklusiboa dute.

**6. grafikoa:** Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio esklusiboa dutenak (LO+LP), erakundearen arabera. 2021



**6. taula**: Berdintasunaren arloko organoak edo administrazio-unitateak dituen erakunde-kopurua. 2021

| Erakundeak | Erakunde kopuruak | Sortzeko bidean | Beste egitura[10] |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 12 | | 1[11] |
| Emakunde | 1 | | |
| Foru Aldundiak | 3 | - | 1 |
| Udaletxeak | 30 | 3 | 11 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 7 | 1 | 3 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 7 | 2 | 6 |
| Kapital publikoko enpresak | 1 | 1 | 8 |
| Beste erakunde batzuk | 1 | - | 4 |
| **GUZTIRA** | **62** | **7** | **33** |

**7. taula:** Berdintasuna sustatzeko lanaren ezaugarriak[12]. 2021

| Erakundeak | Emakumeak lanaldi osoan | Gizonak lanaldi osoan | Emakumeak lanaldi partzialean | Gizonak lanaldi partzialean | A maila | B maila | C maila | D maila | Besteak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza[13] | 16 | - | - | - | 16 | - | - | - | - |
| Emakunde | 30 | 8 | - | - | 24 | 1 | 4 | 5 | 4 |
| Foru Aldundiak[14] | 15 | - | 3 | 1 | 16 | - | 3 | - | - |
| Udaletxeak | 27 | - | 17 | 2 | 20 | 16 | 8 | - | 3 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 3 | - | 1 | - | 2 | 2 | - | - | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 7 | - | - | - | 7 | - | - | - | - |
| Kapital publikoko enpresak | - | - | - | 1 | | | | | |
| Beste erakunde batzuk | 2 | - | 1 | - | 3 | - | - | - | - |
| **GUZTIRA** | **100** | **8** | **22** | **4** | **88** | **19** | **15** | **5** | **7** |

**8. taula:** Teknikariak, kontratu-motaren arabera (%). 2021

| Erakundeak | Funtzionario edo finkoa | Ere bateratko kontratua |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | %83,3 (10) | %16,7 (2) |
| Emakunde | %100 (16) | - |
| Foru Aldundiak | %46,7%(7) | %53,3 (8) |
| Udaletxeak | %35,5%(11) | %64,5 (20) |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | %50,0 (2) | %50,0 (2) |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | %71,4 (5) | %28,6 (2) |
| Kapital publikoko enpresak | %100 (1) | - |
| Beste erakunde batzuk | %50,0 (1) | %50,0 (1) |
| **GUZTIRA** | **%60,2 (53)** | **%39,8 (35)** |

[10] Mahaiak, berdintasun-batzordeak, berdintasun-taldeak

[11] Segurtasun Saila: Berdintasun-teknikaria etengabe ari da lanean Saileko zuzendaritza guztiekin eta AVPErekin. Horietako bakoitzean, pertsona bat edo batzuk daude esleituta koordinazio horretarako.

[12] Erakundeek ez dute kasu guztietan berdintasuna bultzatzen duen enplegu guztia banakatu, eta, beraz, guztizkoak desberdinak dira.

[13] Sail batek adierazi du pertsona bat kontratatu zela 6 hilabeterako Berdintasun Unitatearekin lankidetzan aritzeko, eta, horregatik, langile kopuruak gora egin du 2021ean.

**9. taula:** Berdintasuna sustatzeko eginkizunak dituzten teknikariak. 2021

| Erakundeak | Berariazko prestakuntza >150 ordu | 150 ordutik beherako berariazko prestakuntza, edo ez da agertzen |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 16 | - |
| Emakunde | 16 | - |
| Foru Aldundiak | 12 | - |
| Udaletxeak | 32 | 1 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 4 | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 7 | - |
| Beste erakunde batzuk | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **88** | **2** |

**10. taula:** Arduraldi esklusiboa duten langileak, lanaldi-motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Dedikazio esklusiboa LO | Dedikazio esklusiboa LP |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 15 | - |
| Emakunde | 16 | - |
| Foru Aldundiak | 12 | 3 |
| Udaletxeak | 17 | 14 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 3 | 1 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 6 | - |
| Kapital publikoko enpresak | - | 1 |
| Beste erakunde batzuk | 2 | - |
| **GUZTIRA** | **71** | **19** |

**11. taula:** LPZn (Lanpostuen Zerrendan) berdintasun-teknikariak eta A mailako lanpostuak dituzten erakundeak. 2021

| Erakundeak | Bai, lanpostu guztiak LPZn | Plaza batzuk LPZn | A mailako plaza guztiak | A mailako plaza batzuk |
|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 9 | 2 | 11 | - |
| Emakunde | 1 | - | 1 | - |
| Foru Aldundiak | 2 | 1 | 3 | - |
| Udaletxeak | 11 | 3 | 11 | 2 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 2 | - | 2 | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 6 | - | 7 | - |
| Beste erakunde batzuk | - | 1 | 1 | - |
| **GUZTIRA** | **31** | **7** | **36** | **2** |

## 2.4.- Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan

Administrazio publikoen politikak behar bezala garatzeko, berariazko aurrekontuak eduki behar dira berdintasunaren arloko jarduerak sustatzeko. Ildo horretatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legeak ezartzen du autonomia-erkidegoko administrazioak, foru-administrazioak eta toki-administrazioak urtero esleituko eta zehaztuko dituztela beren aurrekontuetan lege horretan aurreikusitako eginkizunak betetzeko eta neurriak betearazteko behar diren baliabide ekonomikoak.

Berdintasunaren arloan gauzatutako aurrekontua EAEko erakunde publikoek gauzatutako aurrekontu orokorraren % 0,81 da.

**Guztira**, 136,0 milioi euro bideratu dira berdintasunera 2021ean:

- Aurrekontu horren zatirik handiena, % 79,8, Eusko Jaurlaritzako sailei dagokie.
- Erakunde autonomoek ere ekarpen nabarmena egiten diete berdintasun-politiken aurrekontuan, gauzatutako aurrekontu osoaren % 7,6; Emakunderen aurrekontuen kasuan, berriz, guztizkoaren % 5,1.
- Era berean, udalen aurrekontua guztizkoaren % 5,1 da eta foru-aldundiena, % 2,1.

**7. grafikoa:** EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundearen arabera. 2021




Azken urteotan gertatu den bezala, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren zati handi baten arrazoia da Hezkuntza Sailak 85,3 milioi eurotik gorako partida duela. Kopuru hori Eusko Jaurlaritzako sailek identifikatutako aurrekontu exekutatu osoaren % 78,5 da, eta EAEko erakunde guztiek identifikatutako aurrekontu osoaren % 62,7.

Berdintasuna bultzatzeko esleitutako eta gauzatutako aurrekontuen arteko aldeari dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- Soilik mankomunitateetan, kuadrilletan eta kapital publikoko enpresetan esleitu den aurrekontua azkenean gauzatu dena baino handiagoa izan da.
- Gainerako erakundeetan egoera alderantzikatu egiten da; izan ere, zenbait kasutan, erakundeek ez dute esleitutako aurrekontua identifikatu, baina bai, ordea, berdintasunaren arloko jarduerak bultzatzeko azkenean gauzatu duten aurrekontu-kopurua.

Esan behar da **berdintasunaren arloko aurrekontuei buruz** gaur egun emandako informazioa mugatua dela oraindik, eta kopuru horiek argigarritzat baino ez dira hartu behar; hala ere, honako hau adierazi behar da:

- Oro har, gauzatutako aurrekontu orokorraren % 0,81 da berdintasunaren alorreko aurrekontu espezifikoa.
- Emakunderen kasua kontuan hartu gabe, Eusko Jaurlaritzako sailak aurrekontu esanguratsuenen ehunekora iristen dira, guztizkoaren % 1,9ra.
- Gainerako erakundeetan ehuneko hori % 0,3 (udalak) eta % 0,01 (kapital publikoko enpresak) artekoa da.

Berdintasuna sustatzeko aurrekontu espezifiko horiek **5 esku-hartzetan** banatzen dira:

- Guztizkoaren % 88,8 (99,9 milioi) berdintasunaren arloko plan eta programetara bideratzen da. Aipatu behar da erakunde batzuek ematen dituzten zerbitzuak edo berdintasun-langileak (udaletan bereziki) sartu ohi dituztela beren planetan, eta, beraz, banakapena ez da guztiz zehatza.
- Era berean, % 5,3a (ia 6 milioi euro) berdintasun-unitateetako langileentzat izan da, eta % 4,0a (4,5 milioi) egitura eta zerbitzuetarako.
- Neurri txikiagoan, guztizkoaren % 0,9 (milioi bat euro) beste kontzeptu batzuei, eta % 0,8 berdintasun-unitateek bultzatutako jarduerei.

**8. grafikoa:** Aurrekontu xehakatuak. 2021



**Aurrekontuetan genero-ikuspegia** txertatzean ematen ari diren aurrerapenei dagokienez:

- 27 erakundek adierazi dute aurrekontuaren **eraginaren aurreko balorazioa** egin dutela.
- 19 erakundek **formakuntzak** egin dituzte aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko, eta, neurri txikiagoan, 12 erakundek **talde espezifikoak** sortu dituzte horretarako.
- Azkenik, 15 erakundek genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko akordioak zein jarraibideak onartu dituzte, eta beste 12 prozesuan daude.

## G9. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea

**12. taula:** Berdintasunaren arloko aurrekontu orokorra eta espezifikoa. 2021

| | Orokorra, gauzatua | Berariaz berdintasunekoa | |
|---|---|---|---|
| | | Esleitua | Gauzatua |
| Eusko Jaurlaritza | 5.607.109.786 | 12.303.862 | 108.624.120 |
| Emakunde | 6.840.405 | 7.406.000 | 6.840.405 |
| Foru Aldundiak | 3.624.286.303[15] | 6.132.629 | 2.847.854 |
| Udaletxeak | 1.858.341.340 | 27.312.835 | 6.900.193 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 76.200.515 | 676.912 | 214.805 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 5.253.685.942 | 462.622 | 10.353.008 |
| Kapital publikoko enpresak | 349.390.980 | 53.500 | 46.188 |
| Beste erakunde batzuk | 9.875.221 | 128.999 | 230.915 |
| **GUZTIRA** | **16.785.730.492** | **54.477.359** | **136.057.488** |

**13. taula:** Gauzatu diren berdintasunaren arloko aurrekontuen xehakapena. 2021

| | Olanak eta programak (jarduketak…) | Berdintasun-unitateak | | Egiturak eta zerbitzuak | Xehakatu ezin diren beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Langileak | Jarduketak | | |
| Eusko Jaurlaritza | 95.389.731 | 689.779 | 84.093 | 61.600 | - |
| Emakunde | - | 2.422.178 | - | 4.412.958 | - |
| Foru Aldundiak | 913.127 | 534.033 | - | - | 751.001 |
| Udaletxeak | 3.199.719 | 1.865.841 | 615.948 | 54.371 | 261.742 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 164.530 | 224.034 | 47.220 | - | 411.77 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 84.735 | 254.153 | 77.656 | - | 52.262 |
| Kapital publikoko enpresak | 44.188 | - | - | - | - |
| Beste erakunde batzuk | 170.915 | - | 114.000 | - | - |
| **GUZTIRA** | **99.966.945** | **5.990.018** | **938.917** | **4.528.929** | **1.065.005** |

**14. taula:** Genero-ikuspegia aurrekontuetan sartzen egindako aurrerapausoak. 2021

| | Aurrekontuaren eraginaren aurretiko balorazioa | Genero ikuspegia duten aurrekontu partzialak | Prestakuntza | Lantaldeak | Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko akordioak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Bai | Prozesuan |
| Eusko Jaurlaritza | 9 | 47 | 4 | 5 | 4 | 1 |
| Emakunde | 1 | 1 | - | - | 1 | - |
| Foru Aldundiak | 3 | 119 | 2 | 2 | 2 | - |
| Udaletxeak | 5 | 41 | 8 | 3 | 3 | 6 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1 | | - | - | 1 | 2 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 6 | 8 | 4 | - | 3 | 1 |
| Kapital publikoko enpresak | 1 | 1 | 1 | 1 | - | 1 |
| Beste erakunde batzuk | 1 | 1 | - | 1 | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **27** | **218** | **19** | **12** | **15** | **12** |

[15] Bi foru aldundiek gauzatutako aurrekontu orokorraren berri eman dute

## 2.5.- Arauen generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak txertatzea euskal administrazioetan

Araudien generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioen garrantziaren ondorioz, EAEk ahalegin handiak egin ditu administrazio publikoetan haien inplementazioa sustatzeko. 4/2005 Legeak, 19. artikuluan, arau guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez izan dezaketen eragina aldez aurretik ebaluatzeko betebeharra ezartzen du. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio horiek funtsezko tresna dira berdintasunerako politika publikoak xedatzeko. Administrazioen genero-zeharkakotasuna lortzeko zutabe nagusietako bat da.

Ebaluazio horien helburua arauetan aurreikusitako jarduketak berdintasunaren ikuspegitik baloratzea da; izan ere, nahiz eta araudiak batzuetan neutroa izan, sexuagatiko desberdintasunen ekoizle gisa artikulatu ohi da.

Aurretiazko ebaluazio horien bidez, arauaren jarduketaren batek edo batzuek berdintasuna lortzeaz bestelako ondorioak izan ditzaketela balioesten bada, neurri zuzentzaileak proposatuko dira indarrean sartu aurretik.

Araudien genero-eraginaren ebaluazioak erronka bat euskal administrazioentzat.

Ebaluazioan parte hartzen duten erakunde gehienek ez dute jarraibiderik edo akordiorik genero-eraginaren ebaluazioak egiteko: 5 erakundek baino ez dute baieztatzen ebaluazio horiek badituztela, eta beste 6 onartzeko prozesuan daude.

Emaitzek erakusten dute esparru hori indartzeko lanean jarraitu behar dela:

- Informatutako arauen % 14,1ek bakarrik egin du genero-eraginari buruzko txostena (aurreko urtean, % 19,6a izan zen, beraz, ehuneko txikiagoa).
- Genero-inpaktuari buruzko txosten horietako 10etik 7k berdintasun-neurriak hartzea eragin dute, eta gainerakoek (% 28,3) neutrotzat jo dira.
- Txosten horiek egitea ohikoagoa da foru-aldundietan, non arau ia guztiei (% 99,5) genero-eraginari buruzko txostena egin baitzaie.

**Zer neurri mota sartzen dira arauetan berdintasuna lortzeko?**

- **Genero-ikuspegia txertatzea**, neurri ohikoena (% 33,9), Eusko Jaurlaritza neurri mota hori gehien txertatu duen erakundea izanik (10).
- **Parte-hartzea sustatzea** (% 19,6). Kasu honetan ere, Eusko Jaurlaritzak neurri horietako gehienak sartu ditu (5).
- **Ekintza positiboko neurriak** (erakundeen % 17,8).
- **Debeku- eta zehapen-neurriak** (% 12,5), diskriminazio anizkoitza duten emakumeentzako berariazko neurriak ( % 8,9) eta, azkenik, itxuraz neutroak diren neurriak (% 7,1).

**9. grafikoa:** Eraginari buruzko txosten-kopurua, berdintasun-neurriak gehitzea eragin dutenen kopurua eta araua neutroa dela ezarri dutenen kopurua, erakundeen arabera. 2021



## G8. Berdintasun-printzipioa araudian txertatzea

**15. taula:** Eraginari buruzko ebaluazioa egin zaien arauen kopurua eta ezaugarriak. 2021

| Erakundeak | Arau orokorren kopurua (legeak, dekretuak...) | Genero-inpaktuari buruzko txostenen kopurua | Arauaren neutraltasuna ondorioztatu duten txostenak | Berdintasun neurriak ezartzea eragin duten txostenak |
|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 562 | 40 | 18 | 23 |
| Foru Aldundiak | 399 | 397 | 96 | 266 |
| Udaletxeak | 2.131 | 18 | 2 | 14 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 65 | 7 | 3 | 3 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 154 | 5 | 3 | 2 |
| **GUZTIRA** | **3.311** | **467** | **122** | **308** |

**16. taula:** Erakundeek arauetan berdintasuna lortzeko ezarri dituzten neurri motak. 2021

| Erakundeak | Genero-ikuspegia | Partaidetza sustatzea | Ekintza positiboa | Inpaktu neutroak | Debekatzaileak eta zigortzaileak | Askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeentzat bereziki |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 10 | 5 | 3 | 2 | 2 | 1 |
| Foru Aldundiak | 3 | 2 | 3 | 1 | 2 | 2 |
| Udaletxeak | 3 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1 | 1 | 1 | - | 1 | 1 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 2 | 2 | 1 | - | 1 | - |
| **GUZTIRA** | **19** | **11** | **10** | **4** | **7** | **5** |

**17. taula:** Genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioak eta jarraipena egiteko onartu diren gidalerroak, akordioak.... 2021

| Erakundeak | Ildo edo akordioak | | | Jarraipena dutenak |
|---|---|---|---|---|
| | Onartuak | Prozesuan | Ez | |
| Eusko Jaurlaritza (gidalerroak AG mailan) | 1 | - | 6 | 3 |
| Foru Aldundiak | 3 | - | - | 2 |
| Udaletxeak | 1 | 3 | 18 | 2 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | - | 2 | 4 | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | - | 1 | 8 | 2 |
| **GUZTIRA** | **5** | **6** | **36** | **9** |

## 2.6.- Berdintasun-politiketan parte hartzea

Herritarrek bi modutan parte hartzen dute berdintasun-politiketan. Lehenengoa, berdintasunerako organo espezifikoen bidez, non berdintasuna bultzatzen lan egiten duten pertsonek edo erakundeek politika horien definizioan eta jarraipenean parte hartzen dute. Bigarrena, non gizarte zibileko erakundeetan edo pertsona adituetan sartzen diren eta/edo berdintasun-funtzioak zein -helburuak definitzen dituzten herritarren partaidetzako organoetan, berdintasuneko espezifikoak izan barik.

EAEko berdintasun-politiketan herritarrek parte hartzeko 154 organo eta kontseilu identifikatu dira.

2021eko ebaluazioari esker, guztira 154 **partaidetza-organo eta -kontseilu** identifikatu dira, honela banatuta:

- % 20,7 berdintasunerako organo espezifikoak dira. Gehienak toki-erakundeetakoak dira (23), baina Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek eta Emakundek ere badituzte egitura horiek.

- Gainerakoak berdintasunerako organo ez-espezifikoak dira, eta batez ere toki-eremuan eta Eusko Jaurlaritzako sailetan kokatzen dira. Zati handi batek ordezkaritza orekatua du ( % 41,2), berdintasun-funtzioak eta -helburuak barne hartzen ditu (% 22,0), berdintasunean lan egiten duten erakundeak ditu (% 22,8) eta berdintasunaren arloko adituen partaidetza ere badu (% 13,9).

**10. grafikoa:** Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osaeran genero ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2021



### G13: Kontsulta- eta partaidetza-organoetan genero-ikuspegia txertatzea

**18. taula:** Herritarren parte-jartzea eta berdintasuna. 2021

| Erakundeak | KONTSULTA ETA PARTAIDETZA ORGANOAK | | BERARIAZ BERDINTASUNEZKOAK EZ DIRENAK[16] | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira (berdintasuna edo berdintasunik ez) | Berariaz berdintasunekoa | Berdintasun funtzio eta helburuekin | Berdintasunean diharduten entitateekin | Berdintasuneko adituen parte-hartzearekin (ez berariazkoak) | Ordezkaritza orekatua |
| Eusko Jaurlaritza | 55 | 4 | 3 | 2 | 2 | 28 |
| Emakunde | 1 | 1 | - | - | - | - |
| Foru Aldundiak | 14 | 3 | 3 | 2 | 3 | - |
| Udaletxeak | 74 | 23 | 22 | 21 | 12 | 25 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 6 | 1 | 2 | 5 | 1 | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 4 | - | - | 1 | 1 | 3 |
| **GUZTIRA** | **154** | **32** | **30** | **31** | **19** | **56** |

[16] Organo berak hainbat esparru estal ditzake, eta, horregatik, Ez espezifikoen batura identifikatutako guztizkoa (120) baino handiagoa da.

## 2.7.- Berdintasunerako prestakuntza administrazio publikoetan

4/2005 Legearen 17. artikuluak pertsona guztiak (teknikariak zein politikoak) berdintasunaren arloan trebatzeko beharra jasotzen du, administrazio publikoen jardueran genero-ikuspegia behar bezala txertatzen dela bermatzeko, desberdintasunei eta genero-arrakala nagusiei buruzko oinarrizko ezagutzak izan ditzaten, garatzen dituzten arlo eta jarduera guztietan berdintasuna zeharka bultza dezaten.

Artikulu horretan adierazten denez, *euskal administrazio publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte beren langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarrizko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra emateko, lege honetan jasotako xedapenak betetzeko eta genero-ikuspegia administrazio-jardueran eraginkortasunez integratzea ahalbidetuko duen ezagutza praktiko nahikoa bermatzeko. Era berean, paragrafo honetan azaldutakoak arrakasta izan dezan, euskal administrazio publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-planak egin eta gauzatu behar dituzte beren zerbitzuko langileentzat, eta sentsibilizazio-jarduerak egin behar dituzte erantzukizun politikoa duten pertsonentzat.* Bestalde, berdintasun-lanpostu espezifikoek arlo horretako ezagutza izan beharko dute sartzeko baldintza gisa. Era berean, enplegu publikoa hautatzeko prozesuetako gai-zerrendetan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari buruzko edukiak ere jaso beharko dira, administrazio-jardueran aplikatzeaz gain.

Parte hartzen duten erakundeen % 21,7k bakarrik ditu berdintasunaren arloko barne-prestakuntzako planak.

Erakundeek sustatutako berdintasunaren arloko barne-prestakuntzako ekintzetan 14.271 pertsonak parte hartu dute, emakumeen presentzia nabarmenagoa izanik (% 67 inguru). Erakunde autonomoek, batez ere Osakidetzak eta Polizia Ikastegiak, pertsona horien erdiak baino gehiago prestatu dituzte. Aipatzekoa da, halaber, UPV/EHUk 2.300 langile baino gehiago prestatu dituela.

**11. grafikoa:** Emakume eta gizonak EAEko administrazioek berdintasunaren arloan sustatutako prestakuntzan[17]. 2021




[17] Sexuaren arabera banakatutako datuetan eta parte-hartzean oinarrituta banakatzea. Erakunde guztiek ez dute partaidetza sexuaren arabera banakatzen.




Prestakuntza-ekintzetan izandako parte-hartzea lanbide-kategorien arabera aztertuta, % 63,1 teknikariak izan dira. Gainerako parte-hartzaileak honako hauek dira: zuzendaritzako langileak (% 17,9), administrariak (% 13,5) eta arduradun politikoak (% 5,4).

**12. grafikoa:** Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalaren arabera. 2021




Erakundeaz eta HAEEez kanpoko berdintasun-arloko prestakuntzetan parte hartu duten pertsonen % 66,3 emakumeak dira.

Guztira, 573 pertsonak parte hartu dute prestakuntza horietan, gehienak emakumeak (% 66,3) izan dira. Beste erakunde batzuk deituriko erakundetan eta Eusko Jaurlaritzan prestatu dira pertsona gehienak. Lanbide-kategoriei dagokienez, kasu honetan ere teknikariak nabarmentzen dira (% 66,1), ondoren zuzendaritzako langileak (% 13,7), administrazioko langileak (% 12,6) eta arduradun politikoak (% 7,5).

**13. grafikoa:** Emakumeak eta gizonak berdintasunari buruzko beste prestakuntza batean (ez barnekoa, ez HAEErena). 2021



## G5. Prestakuntza-jardueretan genero-ikuspegia txertatzea

**19. taula:** Erakundeek sustatu duten berdintasunaren arloko barne-prestakuntza. 2021

| Erakundeak | Emakume partaideak | Gizon partaideak | Partaideak guztira[18] |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 213 | 108 | 321 |
| Foru Aldundiak | 395 | 221 | 616 |
| Udaletxeak | 624 | 406 | 1.145 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 124 | 18 | 142 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 5.639 | 3.095 | 8.738 |
| Kapital publikoko enpresak | 311 | 325 | 636 |
| Beste erakunde batzuk | 2.150 | 523 | 2.673 |
| **GUZTIRA** | **9.456** | **4.696** | **14.271** |

**20. taula:** Berdintasunaren arloko barne-prestakuntzak izandako parte-hartzea, kategorien arabera. 2021

| Erakundeak | EMAKUMEAK | | | | GIZONAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Admin. | Teknikaria | Zuzendaria | Ard. Polit. | Admin. | Teknikaria | Zuzendaria | Ard. Polit. |
| Eusko Jaurlaritza | 47 | 99 | 18 | 14 | 17 | 36 | 14 | 19 |
| Foru Aldundiak | 31 | 192 | 97 | 1 | 27 | 99 | 83 | 1 |
| Udaletxeak | 35 | 117 | 5 | 34 | 7 | 76 | 5 | 28 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 3 | 13 | 3 | 11 | - | 5 | 1 | 8 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 49 | 88 | 19 | 1 | 34 | 49 | 14 | 2 |
| Kapital publikoko enpresak | 39 | 228 | 42 | - | 6 | 243 | 75 | 1 |
| Beste erakunde batzuk | 5 | 90 | 11 | - | 2 | 70 | 13 | 1 |
| **GUZTIRA** | **209** | **827** | **195** | **61** | **93** | **578** | **205** | **60** |

**21. taula:** Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntzak (ez barnekoak, ez HAEEek antolatuak) izandako parte-hartzea. 2021

| Erakundeak | BERDINTASUNA | | |
|---|---|---|---|
| | Partaideak emakumeak | Partaideak gizonak | Partaidetza guztira |
| Eusko Jaurlaritza | 114 | 25 | 139 |
| Emakunde | 17 | 3 | 20 |
| Foru Aldundiak | 1 | - | 1 |
| Udaletxeak | 68 | 22 | 100 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 12 | 8 | 20 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 22 | 6 | 28 |
| Kapital publikoko enpresak | 38 | 37 | 75 |
| Beste erakunde batzuk | 108 | 85 | 190 |
| **GUZTIRA** | **380** | **186** | **573** |

[18] Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, eta, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.

**22. taula:** Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntzak (ez barnekoak, ez IVAPek antolatuak) izandako parte-hartze xehakatua, kategorien arabera. 2021

| Erakundeak | EMAKUMEAK | | | | GIZONAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Admin. | Teknikaria | Zuzendaria | Ard. Polit. | Admin. | Teknikaria | Zuzendaria | Ard. Polit. |
| Eusko Jaurlaritza | 34 | 44 | 2 | - | 3 | 9 | 4 | - |
| Emakunde | - | 13 | 5 | 1 | - | 2 | 1 | - |
| Foru Aldundiak | - | 1 | - | - | - | - | - | - |
| Udaletxeak | 9 | 16 | - | 6 | - | 16 | 1 | 7 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1 | 2 | - | 13 | - | - | - | 3 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 4 | 14 | 3 | 1 | - | 4 | - | 3 |
| Kapital publikoko enpresak | 2 | 22 | 13 | 1 | 1 | 20 | 15 | 1 |
| Beste erakunde batzuk | 6 | 91 | 11 | - | 2 | 70 | 12 | 1 |
| **GUZTIRA** | **56** | **203** | **34** | **22** | **6** | **121** | **33** | **15** |

## 2.8.- Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzetan

4/2005 Legearen 20. artikuluak botere publikoen kontratuetan genero-ikuspegia txertatzea aipatzen du, eta betebehar hori hartzen du, halaber, kontratazio horren erakunde edo pertsona esleipendunak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu behar baititu.

2021ean egindako kontratu guztietatik, % 89,4k berdintasun-irizpideak sartu ditu, aurreko urtearen aldean ehuneko 4 puntu gehiago egon dira.

2021ean, EAEko botere publikoek 5.424 **kontratu** egin dituzte guztira, eta horietatik % 89,4k **berdintasun-irizpideak** sartu dituzte. Ehuneko horrek esan nahi du 2020an lortutako datuak ehuneko 4 puntu gehitu direla.

Emakundek eta beste erakunde batzuek soilik txertatu dituzte irizpide horiek, baina Kapital Publikoko Enpresek (% 99,5), Eusko Jaurlaritzak (% 96,5), Erakunde Autonomoek (% 93,7) eta Udalek (% 86,9) ere modu nabarmenean integratzen dute genero-ikuspegia kontratuetan. Mankomunitateek zein koadrilek ( % 65,1) eta foru-aldundiek (% 53,3) egindako kontratuek ehuneko txikiagoak dituzte.

Berdintasun-irizpide gehienak (% 78,7) egikaritze-baldintza berezietan sartu dira. Kasu gutxitan sartzen dira zehaztapen teknikoen irizpideetan (% 8,5) esleipen-irizpideetan (% 6,0), xedean (% 5,3) edo gaitasun tekniko eta profesionalean (% 1,4).

Berdintasun-irizpideak era murriztuan sartzen dira euskal erakundeek bultzatutako hitzarmen, dirulaguntza eta beketan.

Hitzarmenen kasuan, **hitzarmenen** % 20,4k soilik txertatu ditu **berdintasun-irizpideak** 2021ean (aurreko ekitaldikoa ,% 12,6, baino proportzio handiagoa). Emakunde izan da bere hitzarmen guztietan berdintasun-irizpideak txertatu dituen erakunde bakarra, eta, ondoren, beste erakunde batzuk deritzotenak (% 66,6).

Gainerako erakundeetan ez dira hain ohikoak izan: kapital publikoko enpresen % 35,6, foru-aldundien % 29,3, Eusko Jaurlaritzaren hitzarmenen % 25,9 eta udalen hitzarmenen % 12,9.

Irizpide horietako gehienak egikaritze-baldintza berezietan sartu dira (% 69,0), eta, neurri txikiagoan, xede-irizpideetan (% 31,0).

**Dirulaguntzetan eta laguntzetan berdintasun-irizpideak** sartzeak are kopuru txikiagoa eratu du (% 17,5). Emakunde da oraindik ere dirulaguntza guztietan berdintasun-irizpidea txertatzen duen erakunde bakarra, baina beste erakunde batzuk nabarmendu behar dira, portzentaje esanguratsuak dituztenak: udalak (% 91), erakunde autonomoak (% 82,2) eta Eusko Jaurlaritza (% 75,4). Gainerako erakundeetan oso txikia izan da (Foru Aldundiak, % 12,6; Mankomunitateak, Koadrilak eta Partzuergoak, % 1,1).

Berdintasun-irizpide horiek proiektuaren edo jardueraren balorazioan (% 22,7), balorazio-prozesuan (% 22,4) eta eskatzaileen balorazioan (% 20,7) txertatu dira.

Azkenik, euskal erakundeek bultzatutako **beken** % 29,0k **berdintasun-irizpideak txertatu** ditu (aurreko urtean baino proportzio handiagoa).

**14. grafikoa:** Berdintasun-irizpideak kontratu, dirulaguntza, hitzarmen eta beketan. 2021




Erakunde gutxik onartu dituzte, oraindik ere, berdintasun-irizpideak kontratuetan txertatzeko arauak edo jarraibideak: 12 erakundek baino ez dituzte jarraibide horiek, eta 4 gehiago daude horiek onartzeko prozesuan. Ez dira hain ohikoak dirulaguntzetan berdintasun-irizpideak txertatzeko arau edo jarraibide horiek onartu dituzten edo onartzeko prozesuan dauden erakundeak (5 onartu dira eta 4 prozesuan daude).

## G11. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea

**23. taula:** Berdintasun-irizpideak kontratuetan. 2021

| Erakundeak | Kontratu kopurua | Berdintasun irizpideekin | Irizpideak xedean | Irizpideak baldintza teknikoetan | Irizpideak kaudimen tekniko eta profesionalean | Esleipen-irizpideetan | Betearazpen -baldintza berezietan |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 434 | 419 | 90 | 11 | 8 | 25 | 356 |
| Emakunde | 13 | 13 | 9 | 9 | 7 | 10 | 13 |
| Foru Aldundiak | 450 | 241 | 20 | 206 | 28 | 58 | 406 |
| Udaletxeak | 1.259 | 1.094 | 2 | 7 | 2 | 80 | 42 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 35 | 23 | 3 | 14 | 8 | 9 | 13 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 2.779 | 2.605 | 16 | 1 | 5 | 17 | 2.591 |
| Kapital publikoko enpresak | 449 | 447 | 110 | 148 | 9 | 85 | 273 |
| Beste erakunde batzuk | 5 | 5 | - | 5 | - | - | 5 |
| **GUZTIRA** | **5.424** | **4.847** | **250** | **401** | **67** | **284** | **3.699** |

**24. taula:** berdintasun-irizpideak hitzarmenetan. 2021

| Erakundeak | Hitzarmen kopurua | Berdintasun-irizpideekin | Irizpideak xedean | Betearazpen baldintza berezietan | Beste alor batzuetan |
|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 227 | 59 | 14 | 46 | - |
| Emakunde | 3 | 3 | 3 | - | - |
| Foru Aldundiak | 341 | 100 | 10 | 100 | - |
| Udaletxeak | 295 | 38 | 8 | 7 | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 205 | 4 | 4 | 4 | - |
| Kapital publikoko enpresak | 87 | 31 | 31 | - | - |
| Beste erakunde batzuk | 3 | 2 | 1 | 1 | - |
| **GUZTIRA** | **1.161** | **237** | **71** | **158** | **0** |

**25. taula:** berdintasun-irizpideak dirulaguntzetan eta laguntzetan. 2021

| Erakundeak | Diru-laguntzen eta laguntzen kopurua | Berdintasun-irizpideekin | Irizpideak xedean | Irizpideak balorazio-prozesuetan | Sartzeko baldintzetan | Proiektu/jardueraren balorazioan | Eskatzailean balorazioan | Betearazpen baldintzetan |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 476 | 359 | 4 | 71 | 305 | 86 | 23 | 48 |
| Emakunde | 16 | 16 | 16 | - | 6 | 5 | 6 | 6 |
| Foru Aldundiak | 1.053 | 133 | 13 | 27 | 67 | 37 | 27 | 133 |
| Udaletxeak | 738 | 672 | 115 | 496 | 244 | 474 | 466 | - |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 2.027 | 23 | - | 6 | 7 | 6 | 22 | 7 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 180 | 148 | - | 121 | 6 | 121 | 121 | 123 |
| Kapital publikoko enpresak | 3.221 | 1 | - | - | - | 1 | - | - |
| **GUZTIRA** | **7.711** | **1.352** | **148** | **721** | **635** | **730** | **665** | **317** |

**26. taula:** berdintasun-irizpideak beketan. 2021

| Erakundeak | Bekak | Berdintasun irizpideekin |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 11 | 6 |
| Emakunde | 1 | 1 |
| Udaletxeak | 2 | 2 |
| Kapital publikoko enpresak | 17 | 0 |
| **GUZTIRA** | **31** | **9** |

**27. taula:** Irizpideak kontratazio-prozesuetan aplikatzeko arauak eta gidalerroak onartzea. 2021

| Erakundeak | Kontratuetan | | | | Diru-laguntzetan | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Onartu dituzte | Onartzek o bidean | Jarraipen sistema | Zehapen-mekanism oak | Onartu dituzte | Onartzeko bidean | Jarraipen sistema | Zehapen-mekanism oak |
| Eusko Jaurlaritza | 3 | 1 | 1 | 1 | - | 1 | 1 | - |
| Emakunde | 1 | - | - | 1 | - | - | - | - |
| Foru Aldundiak | 2 | - | - | 1 | 3 | - | - | 1 |
| Udaletxeak | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 4 | 1 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | - | 1 | 2 | 2 | - | 1 | 2 | 1 |
| Kapital publikoko enpresak | 4 | - | 3 | - | - | - | - | - |
| Beste erakunde batzuk | - | 1 | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **12** | **4** | **8** | **7** | **5** | **4** | **8** | **4** |

## 2.9.- Berdintasunaren beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren eremuan

Botere publikoek sustatutako politika eta jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatzeko eskakizuna 4/2005 Legean ezartzen da EAEn. Lege horren 3.4 artikuluan honako hau adierazten da: *EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika zein ekintza guztietan, horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezar dezaten. Lege honen ondorioetarako, genero-ikuspegia integratzea da emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan desberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, politika zein ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera espezifikoak txertatzea.*

### Sektorekako eta zeharkako planak

2021ean, berdintasun-helburuak ( % 44,6) eta berdintasunaren arloko ekintzak ( % 47,7) biltzen dituzten 65 plan sektorial onartu dira.

Guztira 65 **plan sektorial** onartu dira, aurreko ekitaldian lortutakoa halako bi baino gehiago. Honela karakteriza daitezke plan horiek:

- **Aurretiazko diagnostikoa:** % 26,1ek berdintasunari buruzko diagnostiko bat egin dute.
- **Berdintasun-helburuak.** Plan horien zati handi batek berdintasun-helburuak ditu (% 44,6), baita berdintasun-arloko ekintzak ere (% 47,7).
- **Parte-hartzea.** Berdintasun-arduradunaren parte-hartzeari dagokionez, kasuen % 21,5ek parte hartu du hura egiten, eta % 15,4k jarraipen- eta ebaluazio-prozesuan.
- **Ebaluazioa.** Plan horien % 36,9k genero-adierazleak txertatzen ditu ebaluazioan.

**15. grafikoa:** Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2021



## Koordinazio-egiturak

Ebaluazioan, sailen arteko 33 egitura eta sailen arteko 25 egitura identifikatu dira, berdintasuna bultzatzeko.

**Sail arteko edo sail barruko koordinazio-egiturek** laguntzen dute berdintasuna zeharka sustatzen erakundeen jardueran. 2021ean, zehazki, honako hauek identifikatu dira:

- 33 erakundek **sailen arteko egiturak** dituzte, beren erakundeetako arloetan berdintasun-politikak koordinatzeko. Guztira, 240 bilera egin dira, teknikariek eta politikariek parte hartu dute (% 75,8). Gainerako bilerak teknikariei (% 18,3) edo politikariei soilik (% 5,8) zuzendu zaizkie.

- 25 erakundek **sail barruko egiturak** dituzte (batez ere Eusko Jaurlaritzako sailetan eta udaletan). Kasu horretan, 324 bilera egin dira, eta gehienak (% 66,3) teknikariek eta politikariek hartu dute parte. Ez dira hain ohikoak izan teknikarien (% 24,1) eta politikarien (% 9,5) bilerak.

Bestalde, 41 erakundek jakinarazi dute **berdintasunarekin lotutako gaiak koordinatzeko beste egitura batzuk dituztela** (aurreko ekitaldian baino gutxiago). Era berean, 57 erakundek dituzte emakumeen aurkako **indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloak**. Erakunde guztiek, kapital publikoko enpresek eta beste erakunde batzuek izan ezik, lankidetza-ildo bat dute gutxienez, eta/edo berdintasunaren arloko proiektu espezifikoak garatu dituzte nazioarteko erakundeekin edo beste herrialde batzuekin.

**16. grafikoa:** Sail arteko eta berruko egiturak eta 2021ean egindako bileren kopurua




Azkenik, Emakundek eta Foru Aldundiek parte hartzen duten erakunde arteko koordinazio-egituren artean egindako 8 bileren berri eman da: horietako 7 teknikariekin bakarrik izan dira, eta 1 politikariekin.

## Estatistikak eta azterlanak

4/2005 Legearen 16. artikuluak azpimarratzen du EAEko erakundeek, egiten dituzten estatistika eta azterlanetan, genero-ikuspegia txertatu behar dutela, eta betekizun hori ezinbesteko baldintza dela genero-ikuspegia beren jardueran integratzen dela bermatzeko. Irizpide hori betetzea funtsezkoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen egoera eta bilakaera eremu guztietan ezagutzeko.

Estatistiketan eta azterlanetan berdintasun-ikuspegia txertatzeko sistematizazio mugatua

4/2005 Legean ezarritakoa gorabehera, 2021eko ebaluazioak sistematizazio mugatua islatzen du, **estatistiketan eta azterlanetan berdintasunaren ikuspegia txertatzea**ri dagokionez:

- Parte hartzen duten erakundeen % 19,8k baino ez du sistematikoki txertatzen irizpide hori. Emakunde eta Eusko Jaurlaritza dira horren inguruan sistematizazio-maila handiena duten erakundeak.
- Beste gai batzuen sistematizazioa are txikiagoa da, hala nola informazioa modu bereizian ustiatzea edo sexuaren aldagaia beste desberdintasun batzuekin gurutzatzea.

Bestalde, aipatu behar da 36 azterlan egin direla berdintasunaren arloan. Gehienek (29) sektore jakin bateko emakumeen egoera aztertu dute, hala nola politika soziala, kultura, euskara eta kirola eta osasuna edo kontsumoa. Berdintasunaren ezagutzari, balioari eta pertzepzioari buruzko beste 9 azterlan egin dira.

## Ordezkaritza orekatua

Administrazio publikoen helburua da emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua lortzea erabaki- eta ikusarazte-eremuetan. Eremu horietako bat enplegu publikoan sartzeko, hornitzeko eta sustatzeko epaimahaiak dira (4/2005 Legearen 20. artikulua), eta bestea, sariak emateko edo kultura-funtsak eskuratzeko deitutako epaimahaiak.

Enplegu publikoa eskuratzeko, hornitzeko eta sustatzeko 2021ean egindako epaimahaien % 70ek ordezkaritza orekatua izan dute

2021ean 235 **epaimahai egin dira enplegu publikoa eskuratu, bete eta sustatzeko**, eta gehienak ( % 70,2) orekatuta daude. % 32,7k ordezkaritza-klausula orekatuak sartu ditu.

**Sariak emateko edo kultura-funtsak eskuratzeko epaimahaien** deialdietan ere ordezkaritza orekatua izan da bi sexuen artean (% 81,4). Era berean, % 59,7k ordezkaritza orekatuko klausulak sartu ditu.

**17. grafikoa:** Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua epaimahaietan. 2021




Azkenik, kide anitzeko 240 **zuzendaritza-organoren** berri eman da, eta horietatik erdiak baino ez du (% 49,5) emakumeen eta gizonen osaera orekatua. Mankomunitateek, kuadrillek eta udalek dute emakumeen eta gizonen arteko orekarik handiena organo horietan (% 72,7 lehenengo kasuan eta % 67,3 bigarrenean).

**18. grafikoa:** Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2021



### G10. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan

**28. taula:** Genero-ikuspegia plan sektorialetan eta zeharkako planetan sartzea. 2021

| | Onartutako planak | Berdintasun-diagnostikoa | Berdintasun helburuak | Berdintasun ekintzak | Partaidetza berdintasuna lantzen | Ebal./jarra. Partaidetza berdintasunean | Ebaluazioan genero-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 25 | 4 | 8 | 9 | 6 | 5 | 5 |
| Foru Aldundiak | 32 | 5 | 15 | 15 | 3 | 3 | 15 |
| Udaletxeak | 3 | 3 | 1 | 1 | 4 | 1 | - |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 3 | 4[19]* | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 2 | 1 | 1 | 2 | - | - | 2 |
| **GUZTIRA** | **65** | **17** | **29** | **31** | **14** | **10** | **24** |

### G3: Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea

**29. taula:** Berdintasuna sustatzeko koordinazio-egituretan* parte-hartzea. 2021

| | Sail artekoetan | Sain barnekoetan | Erakunde artekoetan |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | - | 10 | - |
| Emakunde | 1 | - | 1 |
| Foru Aldundiak | 2 | 1 | 3 |
| Udaletxeak | 20 | 11 | - |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 4 | 3 | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 6 | - | - |
| **PARTE HARTZEAK GUZTIRA** | **33** | **25** | **4** |

***Erakunde guztiek ez dituzte eduki behar galdetegian jasotako egitura guztiak. Gidoi batekin adierazten dira kasu bakoitzean erantzun beharrik ez duten erakundeak. Erakundeartekoa: Emakunde bakarrik

**30. taula:** Sail arteko koordinazio-egituren bilera kopurua 2021 (berdintasuna)

| | Teknikariak soilik | Politikariak soilik | Teknikariak eta politikariak |
|---|---|---|---|
| Emakunde | 3 | 1 | - |
| Foru Aldundiak | 3 | 3 | - |
| Udaletxeak | 29 | 7 | 175 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 3 | 2 | 5 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 6 | 1 | 2 |
| **GUZTIRA** | **44** | **14** | **182** |

[19] Mankomunitate batek (Gorbeialdea) jakinarazi du diagnostikoen kopurua handiagoa dela planena baino.

**31. taula:** Sailen barruko koordinazio-egituren bilera kopurua 2021 (berdintasuna)

| | Teknikariak soilik | Politikariak soilik | Teknikariak eta politikariak |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 54 | 30 | 72 |
| Foru Aldundiak | - | - | - |
| Udaletxeak | 22 | 1 | 137 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 2 | - | 6 |
| **GUZTIRA** | **78** | **31** | **215** |

**32. taula:** Beste koordinazio-egitura batzuk, indarkeriari lotutako protokoloak eta lerro egonkorrak Nazioarteko lankidetza. 2021

| | Lotutako gaien koordinazioa | Indarkeriari buruzko protokoloa | Nazioarteko lankidetza |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 6 | 2 | 2 |
| Emakunde | 1 | - | 1 |
| Foru Aldundiak | 3 | 3 | 1 |
| Udaletxeak | 23 | 30 | 5 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 2 | 9 | 1 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 4 | 3 | 1 |
| Kapital publikoko enpresak | 1 | 6 | - |
| Beste erakunde batzuk | 1 | 4 | - |
| **GUZTIRA** | **41** | **57** | **11** |

## G4. Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea

**33. taula:** Genero-ikuspegia azterlan eta estatistika sistematikoetan edo puntualetan txertatzea. 2021

| | Sexuaren aldagaia sartzea | | Bereizita ustiatzea | | Askotariko diskriminazioar ekiko gurutzaketa | | Genero-etena antzeman eta aztertzea | | Genero-adierazleak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Sist | Punt | Sist | Punt | Sist | Punt | Sist | Punt | Sist | Punt |
| Eusko Jaurlaritza | 11 | 1 | 12 | - | 9 | 3 | 4 | 5 | 2 | 8 |
| Emakunde | 1 | - | 1 | - | 1 | - | 1 | - | 1 | - |
| Foru Aldundiak | - | 1 | - | 1 | - | 1 | - | 1 | - | 1 |
| Udaletxeak | 4 | 2 | 2 | 3 | - | 4 | - | 3 | - | 3 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 4 | 1 | 4 | 1 | 2 | 3 | 2 | 1 | 1 | 2 |
| Beste erakunde batzuk | 1 | - | 1 | - | - | - | 1 | - | - | - |
| **GUZTIRA** | **21** | **5** | **20** | **5** | **12** | **11** | **8** | **10** | **4** | **14** |

**34. taula:** Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko azterlanak. 2021

| | Azterlanak | |
|---|---|---|
| | Desberdintasunaren ezagutza, balioa eta pertzepzioa | Egoera sektoriala eta kolektiboa |
| Eusko Jaurlaritza | 2 | 5 |
| Emakunde | - | 4 |
| Foru Aldundiak | 1 | 10 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1 | 2 |
| Udaletxeak | 5 | 7 |
| Beste erakunde batzuk | - | 1 |
| **GUZTIRA** | **9** | **29** |

**35. taula:** Azterlan sektorialak, gaien arabera. 2021

| | Kooperazioa | Kultura, Euskara eta Kirola | Enplegua | Ekonomia | Hezkuntza | Osasuna eta kontsumoa | Habitata | Gizarte politikak | Segurtasuna eta justizia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | - | - | 1 | 1 | - | 1 | 1 | - | - |
| Udaletxeak | 1 | 4 | 2 | 2 | 3 | 3 | 2 | 6 | 3 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | - | - | - | - | - | - | - | 1 | - |
| **GUZTIRA** | **1** | **4** | **3** | **3** | **3** | **4** | **3** | **7** | **3** |

**36. taula:** kolektiboei edo emakume-taldeei buruzko azterlanak. 2021

| | Gutxiengo etnikoa | Etorkinak | Desgaituak | Gazteak | Adinekoak | Errenta txikiak | Emakume homosexualak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | - | - | - | 1 | 1 | - | - |
| Foru Aldundiak | 1 | 1 | - | 1 | - | - | - |
| Udaletxeak | - | 4 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | - | 1 | - | - | 1 | - | - |
| **GUZTIRA** | **1** | **6** | **3** | **5** | **6** | **4** | **1** |

## G6. Berdintasunari buruzko edukiak sartzea enplegu publikoan sartzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan

**37. taula:** Hautaketa prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2021

| | Hautapen prozesuak guztira | Berariaz berdintasunera atxikita ez dauden prozesuak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Gaiari lotutako edukiak | Berdinketa hausteko klausularekin | Genero-ikuspegiarekin egindako oinarriak | Merituak edo prestakuntza baloratzen dituzte | Ez dituzte merituak edo prestakuntza baloratzen |
| Eusko Jaurlaritza | 1.193 | 11 | 331 | - | 420 | 223 |
| Emakunde | 1 | 1 | - | - | 1 | - |
| Foru Aldundiak | 401 | 24 | 295 | 24 | 8 | 300 |
| Udaletxeak | 38 | 14 | 7 | 2 | 3 | 19 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 2 | 2 | 1 | 2 | 2 | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 222 | 93 | 189 | 157 | 194 | 11 |
| Kapital publikoko enpresak | 46 | 4 | 30 | 26 | 2 | 7 |
| Beste erakunde batzuk | 25 | - | - | - | - | 2 |
| **GUZTIRA** | **1.928** | **149** | **853** | **211** | **630** | **562** |

| | Berdintasuneko lanpostu teknikoak hartzen dituzten prozesuak | |
|---|---|---|
| | >150 orduko prestakuntza | 150 orduko prestakuntzarik gabe |
| Eusko Jaurlaritza | 1 | - |
| Foru Aldundiak | 2 | 8 |
| Udaletxeak | 3 | 1 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **7** | **10** |

## G12. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea

**38. taula:** Enplegu publikoan sartzeko, mailaz igotzeko… epaimahaiak, sariak emateko epaimahaiak, etab. 2021

| | Enplegu publikoan sartzeko, sustatzeko… eta sariak emateko epaimahaiak | | | Enplegu publikoan sartzeko, sustatzeko… eta sariak emateko epaimahaiak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Ordezkaritza orekatuarekin | Ordezkaritza klausulekin | Guztira | Ordezkaritza orekatuarekin | Ordezkaritza klausulekin |
| Eusko Jaurlaritza | 54 | 42 | 29 | 58 | 49 | 50 |
| Emakunde | 1 | - | - | 1 | - | - |
| Foru Aldundiak[20] | 40 | 31 | 48 | 31 | 19 | - |
| Udaletxeak | 15 | 9 | 3 | 15 | 14 | 4 |
| Mankomunitate eta partzuergoak[21] | 0** | 2 | 7 | - | - | - |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 43 | 41 | 32 | 24 | 23 | 23 |
| Kapital publikoko enpresak | 49 | 7 | 6 | - | - | - |
| Beste erakunde batzuk | 33 | 33 | - | - | - | - |
| **GUZTIRA** | **235** | **165** | **77** | **129** | **105** | **77** |

**39. taula:** Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2021

| | Kide anitzeko zuzendaritza-organoen kopurua | |
|---|---|---|
| | Guztira | Ordezkaritza orekatuarekin |
| Eusko Jaurlaritza | 113 | 43 |
| Emakunde | 1 | - |
| Foru Aldundiak | 31 | 19 |
| Udaletxeak | 55 | 37 |
| Mankomunitate eta partzuergoak | 11 | 8 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 16 | 9 |
| Kapital publikoko enpresak | 13 | 3 |
| **GUZTIRA** | **240** | **119** |

[20] Foru Aldundi batek (Araba) jakinarazi duenez, eratutako epaimahai guztiak baino epaimahai gehiago sartu dira ordezkaritza orekatuko klausulekin.

[21] 2 mankomunitate eta koadrilek (Arabako Lautada eta Gorbeialdea) ez dituzte eratutako epaimahai guztiak sartu, baina ordezkaritza orekatua eta ordezkaritza orekatuko klausulak dituzten epaimahaien kopurua sartu dute.

# 3.- ESKU-HARTZEAREN ARDATZETAKO JARRAIPENAREN EMAITZAK

## 3.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak

2021ean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko 629 jarduketa kuantifikatu dira.

2021ean, erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko 629 jarduketa identifikatu dituzte guztira, aurreko urteetan erregistratutakoa baino kopuru txikiagoa[22]. Jarduera horien azterketak agerian uzten du Eusko Jaurlaritza (guztizkoaren % 35,1) eta udalak (% 32,2) direla jarduketa gehien ezarri dituzten erakundeak. Hiru foru-aldundiak (% 10,0) eta Emakunde (% 8,6) ere nabarmentzen dira.

Adierazi behar da, gainera, jarduketen erdiek (% 54,3) jarraipena ematen dietela 2020an bultzatutakoei, batez ere Emakunderen kasuan (2021eko jarduketen % 77,8k jarraipena eman diete aurreko ekitaldiko esku-hartzeei). Eusko Jaurlaritzaren kasuan, jakinarazitako jarduketen % 60,3k jarraipena eman diote 2020koei.

**19. grafikoa:** EAEn berdintasun-alorrean garatutako jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2021




[22] Kopuru txikiago hori Emakunde jarduera horiek taldekatzeko egiten ari den sentsibilizazio-lanaren emaitza da, eta erakundeek jarduera esanguratsuenen berri baino ez dute ematen. Hala ere, jarduera-kopuruaren gorabehera horien arrazoia da, era berean, zaila dela erakundeek oreka lortzea beren jardueraren berri emateko eta esku-hartze garrantzitsuagoak hautatzeko, era horretako esku-hartzeen irakurketa taldekatua errazteko (sentsibilizazio-kanpainak, esaterako).

**40. taula:** Identifikatu den jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Guztira | % bertikala |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritzako Sailak | 221 | 35,1 |
| Emakunde | 54 | 8,6 |
| Foru Aldundiak | 63 | 10,0 |
| Udaletxeak | 204 | 32,4 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 25 | 4,0 |
| Erakunde Autonomoak /Erakunde Publikoak | 23 | 3,7 |
| Kapital publikoko enpresak | 25 | 4,0 |
| Beste erakunde batzuk | 14 | 2,2 |
| **GUZTIRA** | **629** | **100,0** |

**41. taula:** Aurreko urtekoen jarraipenak izandako jarduketen kopurua eta ehunekoa, erakunde motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Aurreko urtekoen jarraipena (2020) | |
|---|---|---|
| | Kopurua | Guztizkoaren % |
| Eusko Jaurlaritzako Sailak | 134 | 39,2 |
| Emakunde | 42 | 12,3 |
| Foru Aldundiak | 36 | 10,5 |
| Udaletxeak | 90 | 26,3 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 8 | 2,3 |
| Erakunde Autonomoak /Erakunde Publikoak | 12 | 3,5 |
| Kapital publikoko enpresak | 12 | 3,5 |
| Beste erakunde batzuk | 8 | 2,3 |
| **GUZTIRA** | **342** | **100,0** |

## 3.2. Esku-hartzeen helburu politikoak

Berdintasunaren aldeko kultura bultzatzea, horixe baita jardueren helburu nagusia.

Erakundeek identifikatu dituzte EAEko Berdintasunerako VII. Planak ezartzen dituen 3 ardatzekin bat datozen jardueren helburu nagusiak[23]:

- Emakumeen ahalduntzea, ahalduntze pertsonal, kolektiboari , sozial zein politikoari buruzko programen bidez.
- Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea, hiru programaren bidez: berdintasuna aitortzea eraldaketa sozial eta ekonomikorako; emakumeen autonomia ekonomikoa eta zainketen ekonomia feminista.
- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak sustatzea, hiru programa hauek osatuta: sentsibilizazioa eta prebentzioa; kaltearen detekzioa, arreta eta erreparazioa, eta erakundeen arteko koordinazioa.

Aurreko ekitaldiekin bat etorriz, 2021eko jardueren helburuak honako gai hauetan oinarritu dira:

- % 31,9, gizartean **berdintasunaren aldeko kultura sustatzen**.
- Era berean, % 20,9k **emakumeak ahalduntzea eta sustatzea** izan dute helburu, eta % 20,9k, berriz, **emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.**
- Erakundeek neurri txikiagoan aukeratzen dituzten helburuak dira **gobernantza eta erantzukidetasuna hobetzea** ( % 12,9 eta % 5,2, hurrenez hurren).

**20. grafikoa:** Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketen kopurua. 2021




[23] Adierazi behar da ez dela beti erraza izaten jarduera bati helburu bakarra esleitzea, eta, beraz, erakundeei eskatzen zaie, ahal den neurrian, jarduera horren helburu nagusia identifikatzeko.

Jarraian, erakundeen jardueren helburuak zehazten dira:

- **Eusko Jaurlaritzako sailak**: jarduera-aniztasunak sail bakoitzaren eskumen-espezifikotasunari erantzuten dio:
    - Gizartean aldeko kultura ezarri zuen: jardunaldiak, kanpainak eta prestakuntzak, orientazio-, arreta- eta aholkularitza-zerbitzuak, etab.
    - Gobernantza hobetzea: berdintasun-ikuspegia sartzea planetan, ikerketetan, prestakuntzak antolatzea, inplementazio-sistema hobetzea, sailetako planen jarraipena eta ebaluazioak egitea, etab.
    - Indarkeria desagerraraztea: zerbitzu espezifikoak bermatzea (SOS Deiak aplikazioa, Zure Taldekoak gara, etab.), laguntza juridikoa, prestakuntzak antolatzea, hitzaldiak, etab.
    - Ahalduntzea: emakumeen ekintzailetza bultzatzeko dirulaguntzak, lan-ikuskaritzako jarduerak (amatasuna eta edoskitzea, sexu-jazarpenaren gaia eta protokoloak, etab.), emakumeak ikusarazteko kanpainak, etab.
    - Erantzunkidetasuna.

- **Emakunde:** ematen dituen zerbitzuak, sentsibilizazio-kanpainak, dirulaguntzak, lankidetza-hitzarmenak, ikerketak eta abian dauden programak: Gizonduz, Nahiko, Beldur Barik, etab.

- **Foru Aldundiak:** udalerriei eta elkarte feministei eta emakumeen elkarteei laguntzea, toki eta lurralde mailan berdintasuna bultzatzeko, kanpainak (8M eta 25N), gogoeta eta eztabaidarako guneak, lurralde- edo sektore-sareak (enpresak), etab.

- **Udalak/mankomunitateak/kuadrillak**: ahalduntze-eskolekin lotutako jarduerak edo hainbat gairi buruzko ikastaroak, data garrantzitsuetarako jarduera espezifikoak (8M, 17M, 25N, etab.), hezkidetza-jarduerak, indarkeria matxista prebenitzeko saioak, etab.

- **Erakunde autonomoak eta erakunde publikoak**: Laneko Arriskuen Prebentzioan berdintasuna sartzea, osasunean berdintasuna txertatzeko jarduerak, hainbat gairi heltzeko jardunaldiak eta ikastaroak antolatzea, etab.
    - **Kapital publikoko enpresak:** bereziki, emakumeek zientzietan, STEAMen eta enpresan duten zeregina ikusarazteko, sustatzeko eta emakumeak ikusarazteko jarduerak.
    - **Beste erakunde batzuk**: sariak, lehiaketak, aurkezpenak, etab.

**42. taula:** Helburu politiko zehatz bat duen ekintza kopurua, erakunde motaren arabera. 2021

| | Eusko Jaurlaritza | Emakunde | Foru Aldundia | Udala | Mankomun. eta partzuer. | Erakunde autonomo eta publikoak | Kapital publikoko enpresak | Beste erakund e batzuk | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Indarkeria desagerraraztea | 33 | 17 | 10 | 58 | 4 | 2 | - | 4 | **128** |
| Erantzunkidetasuna | 13 | 1 | 8 | 8 | 2 | - | - | - | **32** |
| Emakumeak ahalduntzea/sustatzea | 37 | 6 | 17 | 55 | 8 | 4 | 1 | - | **128** |
| Aldeko kultura sustatzea gizartean | 57 | 25 | 8 | 60 | 6 | 6 | 23 | 10 | **195** |
| Ez da bat ere egokitzen | 27 | 4 | 6 | 5 | 1 | 6 | - | - | **49** |
| Gobernantza hobetzea | 50 | 1 | 9 | 10 | 3 | 5 | 1 | - | **79** |
| **GUZTIRA** | **217** | **54** | **58** | **196** | **24** | **23** | **25** | **14** | **611** |

## 3.3. Berdintasun-ekintzen gaiak

**Hezkuntza eta Gizarte Politika, esku-hartzeen % 43,7ren gai nagusiak.**

Jarduera-fitxetan jorratzen diren gaien artean, bi dira erabilienak, zehazki, Hezkuntza eta Gizarte Politika, eta biek hartzen dituzte esku-hartze guztien % 43,2. Osasuna eta Kontsumoa (% 16,4) eta Kultura, Euskara eta Kirolak (% 14,6) lantzen dituzten jarduerak ere esanguratsuak dira. Kuantitatiboki, Eusko Jaurlaritza (% 45,3) eta Udalak (% 29,4) dira jarduera gehien egin dituzten erakundeak.

Gaiak erakunde sustatzaile nagusien arabera aztertuz gero, desberdintasun esanguratsu batzuk nabarmendu behar dira:

- Eusko Jaurlaritzaren kasuan, jarduerek gai gehienak hartzen dituzte kontuan, baina lau eremu nabarmentzen dira: *Osasuna eta Kontsumoa, Gizarte Politika, Kultura, Euskara, Kirolak eta Ekonomia.*
- Udaletan, gairik erabiliena Hezkuntza (fitxa guztien % 37,0) eta Gizarte Politika (guztien % 33,0) izan dira.

**21. grafikoa:** gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketen kopurua. 2021



**43. taula:** Gaiz zerrenda batzuei buruzko jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021

| | Eusko Jaurlaritza | Emakunde | Foru Aldundia | Udala | Mankomun. eta partzuer. | Erakunde autonomo eta publikoak | Kapital publikoko enpresak | Beste erakunde batzuk | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza | 18 | 4 | 9 | 47 | 4 | - | - | 13 | **95** |
| Kultura, Euskara, Kirola | 28 | 5 | 2 | 19 | 2 | 7 | - | - | **63** |
| Enplegua | 12 | 7 | 2 | 2 | - | 4 | - | - | **27** |
| Ekonomia | 31 | 6 | 7 | 4 | - | - | 1 | - | **49** |
| Osasuna eta kontsumoa | 54 | 2 | 1 | 5 | 1 | 9 | - | - | **72** |
| Habitata | 10 | - | - | - | - | - | - | - | **10** |
| Gizarte politika | 32 | 10 | 6 | 42 | 1 | - | - | 1 | **92** |
| Lankidetza | 1 | - | - | - | - | - | - | - | **1** |
| Segurtasuna eta Justizia | 10 | 4 | - | 8 | 1 | - | - | - | **23** |
| **GUZTIRA** | **196** | **38** | **27** | **127** | **9** | **20** | **1** | **14** | **432** |

## 3.4. Esku-hartze mota

EAEko botere publikoek garatutako ekintzen % 27 sentsibilizazioan, hedapenean eta komunikazioan oinarritzen dira.

EAEko botere publikoek berdintasunaren arloan garatutako ekintzak 9 tipologiatan sailkatzen dira, eta horiek aztertzeko eta eboluzionatzeko aukera ematen dute:

- Esku-hartze erregulatzaileak (deialdietan berdintasun-irizpideak txertatzea, protokoloak onartzea);
- Ekonomikoak (beste erakunde-esparru batzuek, hirugarren sektoreak edo herritarrek esku-hartze espezifikoak garatzeko dirulaguntzak eta laguntzak);
- Herritarrei zuzendutako prestakuntza-ekintzak
- Zerbitzu publikoetako profesionalentzako prestakuntza-ekintzak;
- Sentsibilizaziora, hedapenera eta komunikaziora bideratutako esku-hartzeak (jardunaldiak, kanpainak, materialen edo liburuxken edizioa eta banaketa);
- Informazio-, ezagutza- eta analisi-ekintzak (txostenak, azterlanak, diagnostikoak, estatistika-datuen ekoizpena, etab.);
- Zerbitzuak, baliabideak eta/edo ekipamenduak sortzea eta kudeatzea (indarkeriaren biktimei laguntzeko zerbitzuetatik hasi eta hainbat talderi zuzendutako informazio-zerbitzuetaraino);
- Herritarren parte-hartzerako eta kontsultarako esku-hartzeak (berdintasunerako politikak edo neurriak definitu, jarraitu eta baloratzeko);
- Unitate, instituzio eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazio- eta ituntze-esku-hartzeak (tokiko, foru-erkidegoko eta/edo nazioarteko hitzarmenak, akordioak eta protokoloak sinatzea eta kudeatzea).

2021eko ebaluazioari esker, erakundeen artean ohikoenak diren esku-hartzeak identifikatu ahal izan dira[24]:

- **Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-ekintzak:** ohikoenak izaten jarraitzen dute (esku-hartze guztien % 26,7a), aurreko urtekoaren antzeko proportzioa. Udalek eta Eusko Jaurlaritzako sailek bultzatu dute esku-hartze horietatik handiena (% 65,5).
- **Jarduera ekonomikoak:** esku-hartzeen % 15,9 dira, eta proportzioa 2020koa bera da. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako sailak (45 jarduketa) eta foru-aldundiak (30) dira gai horren barruan esku-hartze gehien izan dituzten erakundeak.
- **Informazio-, ezagutza- eta analisi-ekintzak** (% 13,6): ohikoenak Eusko Jaurlaritzako sailen (53), udalen (23) eta Emakunderen (17) artean.

[24] Erakundeak beren esku-hartzeen lehentasunezko tipologia identifikatzen saiatu ohi dira; hala ere, jarduera bat tipologia bati baino gehiagori egokitu dakioke. Tipologia bikoitz hori bereziki ohikoa da sentsibilizazio-, prestakuntza- edo erakunde-koordinazioko ekintzetan, sarritan esku hartzeko bi alderdi izaten baitituzte (adibidez, ohikoak dira hedapen- eta informazio-ekintzak, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak, edo koordinazio- eta prestakuntza-ekintzak, etab.).

- **Herritarren prestakuntza** (% 11,3): argi eta garbi, udalak dira esku-hartze horien kopuru handiena bultzatu duten erakundeak (guztizkoaren % 63,1).
- **Unitateen, instituzioen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta ituntzea:** ekintza guztien % 10,8; nabarmentzekoak dira udalek (31), Eusko Jaurlaritzak (28) eta Emakundek (17) bultzatutakoak.
- **Erregulazioko esku-hartzeak** (% 5,6), **Zerbitzuen eta/edo ekipamenduen sorrera eta kudeaketa (% 5,3) eta Herritarren parte-hartzea eta kontsulta** (% 4,3), horiek dira oraindik ere gutxien erabiltzen direnak.

**22. grafikoa:** Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2021



**44. taula**: Esku-hartze jakin baten inguruan antolatu den jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021

| | Eusko Jaurlaritza | Emakunde | Foru Aldundia | Udala | Mankomun. eta partzuer. | Erakunde autonomo eta publikoak | Kapital publikoko enpresak | Beste erakunde batzuk | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Esku-hartze ekonomikoa | 45 | 19 | 30 | 23 | 1 | 9 | - | 6 | **133** |
| Esku-hartze arautzailea | 24 | 7 | 7 | 6 | 1 | 2 | - | - | **47** |
| Herritarren prestakuntza | 14 | 8 | 4 | 60 | 5 | 1 | - | 3 | **95** |
| Zerbitzu publikoetako langileentzako prestakuntza | 25 | 5 | 8 | 12 | - | 2 | - | - | **52** |
| Sentsibilizazioa, hedapena eta komunikazioa | 59 | 15 | 21 | 87 | 13 | 17 | - | 11 | **223** |
| Informazioa, ezagutza eta analisia | 53 | 17 | 12 | 23 | 2 | 7 | - | - | **114** |
| Zerbitzu edota ekipamenduen sorrera eta kudeaketa | 27 | 4 | 1 | 11 | 1 | 1 | - | - | **45** |
| Herritarren partaidetza eta kontsulta | 6 | 5 | 4 | 19 | 2 | - | - | - | **36** |
| Unitateen, instituzioen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta hitzarmenak lotzeko esku-hartzea | 28 | 17 | 11 | 30 | 1 | 4 | - | - | **91** |

*Formakuntza*

35.000 parte-hartzaile inguru herritarrei zuzendutako formakuntza-jarduereetan, 2021ean.

Herritarrei zuzendutako berdintasunerako formakuntza-ekintzetan 34.598 parte-hartzailek parte hartu dute 2021ean[25].

Datuak sexuaren arabera bereizi dituzten erakundeen emaitzak aztertuta[26], ikus daiteke emakumeek parte-hartze handiagoa dutela (% 59,8) gizonek baino (% 40,2). Emakumeek prestakuntza-ekintzetan parte-hartze aktiboagoa izatea joera etengabea izaten ari da urteetan zehar.

Udalek biltzen dituzte herritarrei zuzendutako ekintza gehien (guztien % 44,1), baina aipagarriak dira Eusko Jaurlaritzak (% 18,8) eta Foru Aldundiek (% 18,0) sustatutako ekimenak.

**23. grafikoa:** EAEn berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarrak), erakundearen arabera. 2021




Ekintza horien helburua berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea da (% 74,3). Neurri txikiagoan antolatu dira parte-hartzaileen jardueran berdintasun-printzipioak aplikatzen laguntzeko (% 17,1) edo enplegagarritasuna bultzatzeko (% 8,6) ekintzak. Ekintzen % 12,9k bakarrik eskaini die parte-hartzaileei prestakuntza egin izanaren ziurtagiria edo egiaztagiria.

[26] Zehazki, sexuaren arabera bereizi da 25.465 pertsonen parte-hartzea: 15.224 emakume eta 10.241 gizon.

**24. grafikoa:** Herritarrak trabatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2021




Aurreko urtearekin alderatuta, % 22,4 igo da zerbitzu publikoetako profesionalei zuzendutako berdintasuneko prestakuntza-jardueretan parte hartu dutenen kopurua.

2021ean, 12.219 pertsonak parte hartu dute zerbitzu publikoetako profesionalentzako (irakasleak, osasun-langileak) berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzetan, eta igoera esanguratsua izan da aurreko urtearekin alderatuta (zehazki, 2.236 parte-hartzaile gehiago).

Datuak sexuaren arabera banakatu dituzten erakundeetatik abiatuta, esan behar da parte-hartzaileen % 60,5 emakumeak direla eta % 39,5 gizonak.

Emakunde (% 56,3), Eusko Jaurlaritza (% 30,8) eta udalak (% 11,3) dira zerbitzu publikoetako profesionalentzako eskaintzarik handiena sustatzen duten erakundeak.

**25. grafikoa**: EAEn berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2021



Zerbitzu publikoetako profesionalentzako ekintzen artean ohikoenak dira lanbide-jardueran aplikatzen laguntzea eta berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea. Prestakuntza horien % 28k bakarrik ematen ditu ziurtagiriak edo egiaztagiriak parte hartu ondoren.

**26. grafikoa:** Zerbitzu publikoentzako prestakuntza jarduketen kopurua, helburuaren arabera. 2021




Argi dago, bai herritarrei zuzendutako prestakuntza-ekintzetan, bai zerbitzu publikoetako profesionalentzako ekintzetan, emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa dela.

**27. grafikoa:** Herritarrentzako prestakuntzan eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntzan parte hartu dutenen kopurua. 2021



**45. taula:** Herritarrentzako prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua, erakunde motaren arabera. 2021

| | Emakume partaideak | Gizon partaideak | Partaideak guztira[27] |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 1.839 | 1.895 | 6.501 |
| Emakunde | 1.903 | 1.833 | 3.772 |
| Foru Aldundia | 86 | 1.784 | 6.241 |
| Udaletxeak | 9.034 | 4.278 | 15.271 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 231 | 12 | 243 |
| Beste erakunde batzuk | 2.131 | 439 | 2.570 |
| **GUZTIRA** | **15.224** | **10.241** | **34.598** |

**46. taula:** Prestakuntza-helburu zehatzak (herritarren prestakuntza) lortzeko antolatu den jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021

| | Berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea | Lanbidearen jardueran aplikatzen laguntzea | Enplegagarritasuna hobetzea | Ziurtagiria/ akreditazioa barne |
|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 4 | 2 | 2 | 3 |
| Emakunde | 7 | 4 | - | 3 |
| Foru Aldundiak | 1 | 1 | - | 1 |
| Udaletxeak | 37 | 5 | 4 | 1 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 2 | - | - | - |
| Beste erakunde batzuk | 1 | - | - | 1 |
| **GUZTIRA** | **52** | **12** | **6** | **9** |

**47. taula:** Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretan parte hartu duen pertsona-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021

| | Emakume partaideak | Gizon partaideak | Partaideak guztira[28] |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 2.151 | 714 | 3.759 |
| Emakunde | 3.607 | 3.170 | 6.877 |
| Foru Aldundiak | 51 | 21 | 86 |
| Udaletxeak | 153 | 40 | 1.380 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 105 | 12 | 117 |
| **GUZTIRA** | **6.067** | **3.957** | **12.219** |

**48. taula:** Zerbitzu publikoei prestakuntza-helburuen inguruan eskaini zaien prestakuntza-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021

| | Berdintasunari buruzko ezagutza hobetzea | Lanbidearen jardueran aplikatzen laguntzea | Enplegagarritasuna hobetzea | Ziurtagiria/akreditazioa barne |
|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 11 | 18 | 1 | 15 |
| Emakunde | 1 | 1 | - | 2 |
| Foru Aldundiak | 3 | 6 | 1 | - |
| Udaletxeak | 7 | 8 | 3 | 1 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 2 | 2 | - | - |
| **GUZTIRA** | **24** | **35** | **5** | **18** |

[27] Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.

[28] Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.

*Sentsibilizazioa*

Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jarduereetan parte hartzen dutenen kopuruak gora egiten jarraitzen du, batez ere emakumeengan.

Urtetik urtera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopuruak gora egiten jarraitzen du. Zehazki, 2021ean 117.573 pertsonak hartu dute parte, hau da, aurreko urtean baino % 8,4 gehiagok. Datuen sexuaren araberako banaketa erraztu duten erakundeen emaitzetatik abiatuta, nabarmentzekoa da emakumeen gehiengoa dagoela, ekintza-tipologia horretan ohikoa den bezala (guztizkoaren % 65,7).

Erakunde autonomoek eta erakunde publikoek sustatutako ekintzek hartzen dute parte-hartzaile gehien, guztizkoaren % 83,9.

**28. grafikoa:** Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2021




Sentsibilizazio-ekintzen tipologia heterogeneoa da, eta askotariko ekintzak biltzen ditu, ekintza bakoitzean bat baino gehiago konbinatuz. Guztira 296 ekintza identifikatu dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira jardunaldien, erakusketen, solasaldien, kontzertuen, ekitaldien edo antzekoen antolaketa eta sentsibilizazio-materialen sorkuntza eta banaketa, guztien % 55 baino gehiago biak elkartuz.

**29. grafikoa:** Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2021



**49. taula:** Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueraetan parte hartu duen pertsona kopurua, erakunde motaren arabera. 2021

| | Emakume partaideak | Gizon partaideak | Partaideak guztira[29] |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 1.014 | 1.753 | 3.444 |
| Emakunde | 3.780 | 3.173 | 6.953 |
| Foru Aldundiak | 17 | 6 | 23 |
| Udaletxeak | 3.289 | 1.910 | 6.871 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1.191 | 455 | 1.691 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 66.416 | 32.175 | 98.591 |
| **GUZTIRA** | **75.707** | **39.472** | **117.573** |

**50. taula:** Sentsibilizazio-jardueren kopurua, tipologiaren eta erakunde-motaren arabera. 2021

| | Jardunaldiak, erakusketak, hizketaldiak… | Materialak sortu eta zabaltzea | Hedapen-kanpaina hedabideetan | Komunikazio instituzionala/korporatiboa | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 13 | 17 | 13 | 12 | 55 |
| Emakunde | 5 | 9 | 5 | 8 | 27 |
| Foru Aldundiak | 9 | 9 | 12 | 5 | 35 |
| Udaletxeak | 43 | 33 | 26 | 21 | 123 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 9 | 5 | 6 | 3 | 23 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 3 | 8 | - | 10 | 21 |
| Beste erakunde batzuk | - | 1 | 11 | - | 12 |
| **GUZTIRA** | **82** | **82** | **73** | **59** | **296** |

[29] Hainbat erakundek guztizkoak baino ez dituzte adierazi, horregatik, guztizko kopurua handiagoa da.

EAEko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko informazioarekin, ezagutzarekin eta analisiarekin lotutako 114 esku-hartze 2021. urtean.

Hainbeste aldaketa jasaten dituen gizarte batek etengabe hartu behar du kontuan horrek dakartzan faktoreen bilakaera, eta, beraz, berdintasun-politiken diseinua aldaketa horiek kontuan hartuko dituen ezagutza eguneratuan oinarritu behar da. Egoera horren aurrean, EAEko botere publikoek 114 esku-hartze egin dituzte informazioari, ezagutzari eta analisiari buruz.

Erakundeen arabera, Eusko Jaurlaritzako sailak ( % 46,5), udalak ( % 20,2) eta Emakunde ( % 14,9) izan dira esku-hartze gehienak egin dituztenak.

**30. grafikoa:** Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2021




Erakundeek informazioa, ezagutza eta analisia lantzeko esku-hartzeen ezaugarriak eta tipologia askotarikoak dira.

Diagnostikoak edo azterlanak egiteak esku-hartze horien zati handi bat biltzen du ( % 30,8), baita ebaluazio-txostenak egiteak ( % 24,4), datuak biltzeak edo informazioa biltzeko sistema aldatzeak ( % 18,7) eta berdintasun-estrategiak eta -politikak hobetzeko proposamenak jasotzen dituzten txostenek ( % 18,7) ere.

**31. grafikoa:** informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketen kopurua, oinarrizko edukiaren arabera. 2021




## INFORMAZIO OSAGARRIA

**51. taula:** jarduera zehatz batzuei buruzko informazio-, ezagutza- eta azterketa-jarduketen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021

| | Datuak biltzea eta informazioa biltzeko sistema aldatzea | Diagnostikoa edo azterketa | Proposamenen txostena prestatzea | Jarduteko barne jarraibideak berrikusi eta aldatzea | Ebaluazio txostena prestatzea | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 10 | 14 | 8 | 3 | 11 | 46 |
| Emakunde | 4 | 7 | 7 | 1 | 8 | 27 |
| Foru Aldundiak | 2 | 7 | 4 | 2 | 1 | 16 |
| Udaletxeak | 4 | 9 | 4 | 2 | 9 | 28 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 3 | 1 | - | 1 | 1 | 6 |
| **GUZTIRA** | **23** | **38** | **23** | **9** | **30** | **123** |

## 3.5. Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzea eta kudeatzea

Euskal administrazioek 2021ean guztira 45 jarduera garatu dituzte, baliabideak, zerbitzuak eta ekipamenduak sortzeko eta kudeatzeko.

Eusko Jaurlaritzako sailak (% 60) eta udalak (% 24,5) dira baliabideak, *zerbitzuak eta ekipamenduak sortzera eta kudeatzera* bideratutako jarduera gehienen arduradunak.

**32. grafikoa:** Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketen kopurua, erakundearen arabera. 2021




Zerbitzu-mota aztertuta, horietako asko emakumeen ahalduntzea sustatzera bideratzen dira (% 38,1), baina emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzea ere ohikoa da (% 28,6). Pisu txikiagoa dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko informazioa, dokumentazioa eta aholkularitza emateko zerbitzuek (% 19,0), bai eta zaintzaren gizarte-erantzunkidetasunak ere (% 14,3).

2021ean 16 baliabide, zerbitzu edo ekipamendu berri sortu direla jakinarazi da, batez ere Eusko Jaurlaritzako sailek (7) eta udalek (7) kudeatutakoak. Beste 30 jarduera zerbitzu, baliabide edo ekipamenduaren kudeaketara eta/edo aldaketara egokitzen dira (horietako 21 Eusko Jaurlaritzako sailenak dira).

**33. grafikoa:** Zerbitzu eta baliabideak sortu, , kudeatu eta aldatzeko jarduketen kopurua. 2021




Aipatu behar da diagnostikoak egin direla zerbitzu edo ekipamendu horietako 9tan (batez ere udaletan) emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta premiak identifikatzeko. Azkenik, berdintasuneko langile espezializatuak dituzten 17 zerbitzu identifikatu dira, batez ere Eusko Jaurlaritzan (7) eta udaletan.

## INFORMAZIO OSAGARRIA

**52. taula:** Zerbitzuak eta ekipamenduak sortzeko eta kudeatzeko jarduketen kopurua eta ezaugarriak, erakundeen arabera. 2021

| Erakundeak | Dagoen zerbitzua, baliabidea edo ekipamendua kudeatu edo aldatzea | Baliabide, zerbitzu edo ekipamendu berria sortzea | Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen eta beharren diagnostikoa egin da | Zerbitzuan berdintasun-alorreko langile espezializatuak daude | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 21 | 7 | 2 | 7 | 37 |
| Emakunde | 3 | - | 1 | 2 | 6 |
| Foru Aldundiak | 1 | - | 1 | 1 | 3 |
| Udaletxeak | 5 | 7 | 5 | 7 | 24 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | - | 1 | - | - | 1 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | - | 1 | - | - | 1 |
| **GUZTIRA** | **30** | **16** | **9** | **17** | **72** |

**53. taula:** Zerbitzua, baliabidea edo ekipamendua, erakunde motaren arabera. 2021

| Erakundea | Informazioa, aholkularitza... | Ahalduntzeari laguntza | Biztanleen erantzukidetasuna | Arreta genero-indarkeria izan dutenei | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 3 | 11 | 3 | 7 | 24 |
| Emakunde | 2 | 1 | 1 | - | 4 |
| Foru Aldundiak | 1 | - | - | 1 | 2 |
| Udaletxeak | 1 | 4 | 2 | 4 | 11 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1 | - | - | - | 1 |
| **GUZTIRA** | **8** | **16** | **6** | **12** | **42** |

## 3.6. Berdintasun-ekintzen erakunde eta pertsona onuradunekiko hurbilketa

**Gazteak eta emakumeak, berdintasun-jardueren hartzaile nagusiak.**

Gizarte osoari berdintasuna bultzatzeko 236 ekintza zenbatu dira 2021ean. Ekintza horietako gehienak emakumeentzat izan dira (% 65,3), eta nabarmen murriztu dira gizonentzat (% 18,6) edo beste identitate batzuetako pertsonentzat (% 16,1).

**34. grafikoa:** Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2021




Esku-hartze horiek hartzen dituzten eremuei dagokienez, ohikoenak administrazio publikoei zuzendutakoak dira (guztizkoaren % 32,1), eta horien atzetik datoz eremu zibila (% 23,2) eta beste jarduera-eremu batzuk (% 17,2).

Ekintzak zehatzago aztertuz gero, ekintza horien xede den biztanleria espezifikoa identifika daiteke. Kolektibo hartzaileetan nolabaiteko aniztasuna ikusten da, nahiz eta esku-hartze horien kopururik esanguratsuena gazteek (% 28,5), migratzaileek (% 12,6) eta adinekoek (% 12,6) kontzentratzen duten.

Beste talde batzuen sailkapenaren azpian (% 18,9) talde oso espezifikoak daude (prostituzioa, LGTBI, osasun- edo adikzio-arazoak dituztenak) edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

**35. grafikoa:** Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2021




Euskal administrazioek sustatzen dituzten esku-hartzeen helburua emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murriztea edo ezabatzea da, adinarekin, sexu-aukerekin, etnia edo arrazarekin eta abarrekin lotutako beste desberdintasun batzuei heltzearekin batera.

Desberdintasunaren jatorri gisa adina, sexu-aukera eta gizarte-klasea dira gehien jorratzen diren jardueretan sartzen diren aldagaiak, horien % 61a multzokatuz.

Beste gai batzuk ere, hala nola etnia eta/edo arraza edo desgaitasuna, desberdintasunaren sorburu gisa landu dituzte, batez ere, udalek.

**36. grafikoa:** Bestelako desberdinkeriak borrokatzera bideratutako ekintzen kopurua. 2021.



**54. taula:** Jarduketa-kopurua, hartzaileen eta erakunde-motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Merkataritza-arloa | Pertsonala edota familiakoa | Arlo zibila | Administrazioak | Beste arlo batzuk | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 32 | 37 | 37 | 79 | 46 | 231 |
| Emakunde | 12 | 5 | 27 | 26 | 7 | 77 |
| Foru Aldundiak | 6 | 2 | 11 | 15 | 2 | 36 |
| Udaletxeak | 2 | 27 | 33 | 16 | 18 | 96 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | - | 1 | 1 | 5 | 1 | 8 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 2 | 2 | - | 10 | 7 | 21 |
| Kapital publikoko enpresak | 1 | - | - | - | - | 1 |
| **GUZTIRA** | **55** | **74** | **109** | **151** | **81** | 470 |

**55. taula:** Gizonentzat, emakumeentzat eta beste identitate batzuentzat berariaz antolatutako jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Emakumeak | Gizonak | Beste identitateak | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 31 | 4 | 5 | 40 |
| Emakunde | 19 | 9 | 3 | 31 |
| Foru Aldundiak | 15 | 2 | - | 17 |
| Udaletxeak | 72 | 26 | 26 | 124 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 8 | 2 | 3 | 13 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | 8 | - | - | 8 |
| Beste erakunde batzuk | 1 | 1 | 1 | 3 |
| **GUZTIRA** | **154** | **44** | **38** | **236** |

**56. taula:** Kolektibo zehatzetan oinarritutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Gutxiengo etnikoak | Etorkinak | Desgaitasun pertsonak | Gazteak | Adinekoak | Errenta txikiak | Pert. Homosexualak | Beste batzuk | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 4 | 5 | 3 | 10 | 3 | 2 | 2 | 26 | 55 |
| Emakunde | 6 | 5 | 5 | 8 | 7 | 3 | 2 | 4 | 40 |
| Foru Aldundiak | 1 | 2 | 2 | 7 | 3 | 1 | 2 | - | 18 |
| Udaletxeak | 9 | 17 | 10 | 38 | 18 | 8 | 6 | 14 | 120 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 1 | 3 | 1 | 1 | 1 | 1 | - | - | 8 |
| Erakunde autonomoak eta entitate publikoak | - | - | - | 1 | - | - | -- | 4 | 5 |
| Beste erakunde batzuk | - | - | - | 7 | - | - | | - | 7 |
| **GUZTIRA** | **21** | **32** | **21** | **72** | **32** | **15** | **12** | **48** | 253 |

**57. taula:** Berdintasunaren arloko beste helburu batzuei (ez soilik emakumeei eta gizonei) lotutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Adina | Gizarte-klasea | Sexu-aukera | Desgaitasuna | Etnia/ arraza | Nazio jatorria | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 5 | 1 | 6 | 3 | 3 | 2 | 20 |
| Emakunde | 9 | 5 | 6 | 5 | 6 | 4 | 35 |
| Foru Aldundiak | 2 | 1 | 2 | 2 | 1 | 1 | 9 |
| Udaletxeak | 30 | 26 | 27 | 18 | 19 | 14 | 134 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 3 | 6 | 1 | 1 | 1 | 3 | 15 |
| **GUZTIRA** | **49** | **39** | **42** | **29** | **30** | **24** | **213** |

## 3.7. Egokitzapen-neurrien erabilera ekintzetan

Behar dituzten taldeek parte hartzeko egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen presentzia txikia egon da.

Gutxi dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko esku-hartzeak, eta egokitzapen-neurriak hartzen dituzte behar dituzten pertsona-taldeen parte-hartzea errazteko: pertsona gorrentzako itzulpena; espazio presentzial edo birtualetarako irisgarritasun fisiko zein komunikatiboa; migratzaileentzako beste hizkuntza batzuetara itzultzea, etab. Soilik 49 esku-hartzek txertatu dituzte neurri horiek.

Udalak, Foru Aldundiak eta Emakunde dira egokitutako jarduera gehien bultzatzen dituzten erakundeak.

**37. grafikoa:** Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2021




INFORMAZIO OSAGARRIA

**58. taula:** Hainbat kolektiboren ezaugarrietara egokitzeko neurriak ezarri dituen jarduketa-kopurua, erakunde motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Desgaitasuna duten pertsonei egokitzea | Etorkinei egokitzea | Beste talde batzuei egokitzea | Guztira erakundeko |
|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 4 | 3 | 1 | 8 |
| Emakunde | 7 | 2 | 2 | 11 |
| Foru Aldundiak | 6 | 4 | 3 | 13 |
| Udaletxeak | - | 10 | 5 | 15 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 2 | - | - | 2 |
| **GUZTIRA** | **19** | **19** | **11** | **49** |

## 3.8. Esku-hartzeen kostua

Erakundeek egindako esku-hartzeen kostua 118,4 milioikoa izan da. Erantzunkidetasuna sustatzeko jarduerek 90,2 milioi euroko aurrekontua izan dute.

2021ean, erakundeek jakinarazitako jarduketen guztizko kostua 118.465.818 eurokoa da, aurreko urtean baino % 5,2 gehiago. Jarduketen kostu osoaren % 90,9 Eusko Jaurlaritzako sailek bultzatutako jarduerei dagokie. Azken urteotan adierazi den bezala, Hezkuntza Sailak bultzatzen dituen bi jarduketek eragin dute hori (0-3 urte bitarteko adingabeen hezkuntzaren estaldura unibertsalari buruzkoak, hala nola emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten esku-hartzeak), kostu osoaren % 71,2 hartzen baitute.

Jarduketen kostuei dagokienez, erakundeek lortu nahi duten helburuaren arabera, honako hau adierazi behar da:

- 90,2 milioi (kostu osoaren % 76,3) bideratu dira **zainketen erantzunkidetasuna bultzatzeko**, batez ere Eusko Jaurlaritzaren jarduketengatik (89,9 milioi) eta, bereziki, Hezkuntza Sailak eta, neurri txikiagoan, foru-aldundiek bultzatutakoengatik (281.320 €).

- 7,1 milioi **emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko**. Eusko Jaurlaritza 4,8 milioi, Emakunde 981.542 €, udalak 663.074 €eta foru-aldundiak 617.388 €. Ekintza horien artean daude laguntza juridikoa eta psikologikoa, laguntza ekonomikoak, sentsibilizazio-jarduera, prestakuntza, etab.

- **Emakumeen ahalduntzea eta sustapena** bultzatzeko jarduerek 6,1 milioi euro izan dituzte. Batez ere, Eusko Jaurlaritzako sailek (3,6 milioi) eta, neurri txikiagoan, foru-aldundiek (281.320 €) egin dituzte. Helburu hori lortzeko egin diren jarduerak gizarte-bazterkeriako egoeran dauden emakumeekin egindako esku-hartzeetan, enplegua sustatzean eta abarretan oinarritu dira.

- 5,7 milioi bideratu dira **gizartean balio-aldaketa sustatzeko** jardueretara. Ekintza horietako gehienak Eusko Jaurlaritzako sailei (3 milioi), Emakunderi (1,5 milioi) eta, neurri txikiagoan, foru-aldundiei (587.701 €) eta udalei (399.846 €) dagozkie.

- Erakundeek **gobernantza hobetzeko** jarduketak ere egin dituzte: 2,6 milioiko kostua izan dute. Ekintza horiek batez ere udalek bultzatu dituzte (1,5 milioi) eta, neurri txikiagoan, Emakundek (500.000 €).

Informatutako jarduketen % 59,1ek kostua barne hartu dute, aurreko ekitaldietakoaren oso antzeko proportzioa; gainerakoa, batez ere erakundeetako langileek egin dute.

**38. grafikoa:** EAEn berdintasun-alorrean jorratutako jarduketen kopurua, erakundearen arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta dutenak. 2021




Foru-aldundien jardueren % 95,2k 3,8 milioi euroko kostua izan du, eta Emakunderen jarduketen % 74,0k 3,1 milioi eurokoa. Udalei dagokienez, jardueren % 68,1ek 3,4 milioi euro izan dute. Neurri txikiagoan daude beste erakundeak (jardueren % 42,8k 50.085 €-ko kostua izan dute) eta erakunde autonomoak (245.208 €). Azkenik, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi dituen 107 jarduerak 107 milioi eurokoak izan dira.

**39. grafikoa:** Jakinarazitako jarduketen kostu osoa, erakundearen arabera (milakoetan). 2021



## INFORMAZIO OSAGARRIA

**59. taula:** Kostu eta guzti jakinarazitako jarduketak, erakunde-motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Guztira |
|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 109 |
| Emakunde | 40 |
| Foru Aldundiak | 60 |
| Udaletxeak | 139 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 9 |
| Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak | 9 |
| Kapital publikoko enpresak | - |
| Beste erakunde batzuk | 6 |
| **GUZTIRA** | **372** |

**60. taula:** Jakinarazitako jarduketen kostua, erakunde-motaren arabera. 2021

| Erakundeak | Guztira | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | 107.674.177 | 90,9 |
| Emakunde | 3.152.525 | 2,7 |
| Foru Aldundiak | 3.848.582 | 3,2 |
| Udaletxeak | 3.404.607 | 2,9 |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 90.634 | 0,1 |
| Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak | 245.208 | 0,2 |
| Kapital publikoko enpresak | - | - |
| Beste erakunde batzuk | 50.085 | 0,0 |
| **GUZTIRA** | **118.465.818** | **100,0** |

**61. taula:** Jarduketen kostua, esku-hartzearen helburuaren eta erakunde motaren arabera sailkatuta. 2021

| Erakundeak | HELBURUAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Indarkeria desagerraraztea | Erantzukidetasuna | Ahalduntzea/sustatzea | Aldeko kultura sustatzea | Gobernantza hobetzea | Eza da bat ere egokitzen |
| Eusko Jaurlaritza | 4.888.329€ | 89.978.271€ | 3.697.410€ | 3.004.416€ | 337.760€ | 5.704.701€ |
| Emakunde | 981.542€ | 5.783€ | 29.995€ | 1.541.935€ | 500.000€ | 93.270€ |
| Foru Aldundiak | 617.388€ | 281.320€ | 1411714€ | 587.701€ | 257.363€ | 558236€ |
| Udaletxeak | 663.074€ | 9.184€ | 770.486€ | 399.864€ | 1.515.999€ | 46.000€ |
| Mankomunitateak, Kuadrillak eta partzuergoak | 15.724€ | - | 71.260€ | 650€ | - | 3.000€ |
| Erakunde Autonomoak/ Erakunde Publikoak | 12.750€ | - | 172.637€ | 42.022€ | 17.799€ | - |
| Kapital publikoko enpresak | - | - | - | - | - | - |
| Beste erakunde batzuk | 5.785€ | - | - | 44-300 | - | - |
| **GUZTIRA** | **7.184.592€** | **90.274.558€** | **6.153.502€** | **5.576.588€** | **2.628.921€** | **6.405.207€** |